



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko martxoaren 16a

26. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00447. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. faseko eremu urretagarria handitzeko emakida-kontratuko Plan Ekonomiko-Finantzarioaren berrorekatzeko-espedituari Kontu-hartzaitza Nagusiak jarritako eragozpen-ohar etengarriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00448. Galdera, onetsitako luzamendutik kanpo geratzen diren biometanizazio-plantetan ingurumen-babeserako neurri osagarriak ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00449. Galdera, Pérez Capapay jaunak Nafarroako Gobernuako kontu-hartzaile nagusi denetik altxatutako eragozpen-ohar etengarriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-25/PES-00450. Galdera, familiako medikuen eta pediatren lekualdatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00451. Galdera, itxaron-zerrenden datuak atzera begira doitzea eragozten duten arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00452. Galdera, suizidioaren prebentziorako programa Iruñeko espetxean aplikatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00453. Galdera, EIBZ Ezpeleta Jauregira eramateko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00454. Galdera, Nafarroako arte eszenikoetako ikasketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-25/PES-00455. Galdera, gaitako ikasle eta irakasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-25/PES-00457. Galdera, osasun arloan izandako jazarpen salaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00458. Galdera, Espainiako Gobernuak Next Generation funts europarren maileguetako 60.000 milioi eurori uko egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00459. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke lanen aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00460. Galdera, mendekotasuneko III+ graduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

- 11-25/PES-00461. Galdera, gizarte-zerbitzuetako larrialdi-laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-26/PES-00001. Galdera, NOUko sexu- eta/edo lan-jazarpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-26/PES-00002. Galdera, arantza bifidoa eta/edo hidrozeftalia duten pertsona helduak kronikoen estrategian oinarri hartuta artatzeko ereduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-26/PES-00003. Galdera, 2024an eta 2025ean Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan erregistratutako zakurren eta katuen erroldan izandako aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-26/PES-00004. Galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariek goi-mailako kirolari izaera edukitzearen baldintza betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- 11-26/PES-00005. Galdera, biktimak babestearren hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- 11-26/PES-00006. Galdera, O-NOZeko lan-giroari buruzko azken inkestan sexu-jazarpeneko komentarioak egin direla-eta hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- 11-26/PES-00007. Galdera, kotizaziopeko pentsioen eta alargun-pentsioen gutxieneko osagarriak bultzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- 11-26/PES-00008. Galdera, Antxon Alonso Egurrola jaunarekin izandako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- 11-26/PES-00009. Galdera, “Lur-bankua” ekimenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- 11-26/PES-00010. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuak sektore estrategikoak sendotze aldera inbertsio berri bat egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- 11-26/PES-00011. Galdera, LH Dualeko ikasle errepikatzaileen lantoki prestakuntzarako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- 11-26/PES-00012. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren hezkuntza-eskaintza handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00447. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. faseko eremu ureztagarria handitzeko emakida-kontratuko Plan Ekonomiko-Finantzarioaren berrerekatze-espedienteari Kontu-hartzailletza Nagusiak jarritako eragozpen-ohar etengarriari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. faseko eremu ureztagarria handitzeko emakida-kontratuko Plan Ekonomiko-Finantzarioaren berrerekatze-espedienteari Kontu-hartzailletza Nagusiak jarritako eragozpen-ohar etengarriari buruzkoa, 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera bat egin du, idatziz erantzun dakion (11-25/PES-00447), eta, horrekin loturik, hauxe jakinarazten dio Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak:

1. Zein datatan aitortu zuen formalki Nafarroako Gobernuak X. eranskineko egutegiaren atzerapenak Administrazioari egoztekoak zirela, eta zein organo edo arduradun administratibok eragin zituen atzerapen horiek?

Nafarroako Gobernuak bere gain hartu zuen zenbait atzerapen (ez guztiak) Nafarroako Ubidearen Eremu Ureztagarriaren 1. fasea zabaltzeko lanak Administrazioari/emakida-emaileari egozteko modukoak zirela, ebazpen hauen arabera:

– 718/2018 Ebazpena, maiatzaren 29koa, Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onetsi baitziren eremu ureztagarriaren 1. fase-

aren handitzean interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeke eta ustiatzeko herri-lanen emakidaren oreka ekonomikoa berrezartzeko baldintzak, adjudikaziodunak 2016ko azaroaren 28an eskatuak.

– 467/2020 Ebazpena, uztailaren 2koa, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasearen handitzean interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeke eta ustiatzeko herri-lanen emakidako kontratuaren 4. berrerekatzea onartzen duena, Administrazio-klausula Partikularren Agiriaren X. eranskina eguneratzearen ondorioz, Egaren adarri dagokionez (Ega 1 eremuan izan ezik).

– 724/2024 Ebazpena, irailaren 9koa, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasearen handitzean interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeke eta ustiatzeko herri-lanen emakidako kontratuaren 9. berrerekatzea onartzen duena, Administrazio-klausula Partikularren Agiriaren X. eranskina eguneratzearen ondorioz, Egaren adarri dagokionez.

2. Zein da administrazioari egotz dakizkiokeen atzerapenek kontratuaren plan ekonomiko-finantzarioan izan duten guztizko diru-inpaktua, honela xehakaturik: kanonaren aldakuntza, Barne Itzulketa Tasak kontratuaren % 11,328arekiko izandako desbideratzea eta 2020tik aplikatutako tarifetako eragin metatua?

Planteatutako galderari dagokionez, ontzat eman dira 2020ko uztailaren 2ko 4. berrerekatzea, bai eta 9. berrerekatzea ere, zeina Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren irailaren 9ko 724/2024 Ebazpenaren bidez onetsi baitzen.

9. berrerekatzearen kasuan egokitu ziren berrerekatze-kasuak emakidaren BETan sartzeak

% 0,002ko jaitiera ekarri zuen proiektuaren errentagarritasunaren barne-tasan.

Emakidaren Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren arabera, kasu horietan bezala zuzenean berrerekatzeen ondorioz izan diren eraginak konpentsatzeko soilik, neurriak hartu behar dira kontratuaren oreka ekonomiko-finantzarioa berrezartzeko, eta plan ekonomiko eta finantzarioa berrikusi beharko da, oreka berrezarriko duten neurri batzuk sartzeko; hau da, proiektuaren BETA proiektuaren adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzan zehazten zenarekin berriro berdinduko dutenak (kasu honetan, proiektuaren BETA eskaintzaren plan ekonomiko eta finantzarioan jasotako % 11,328ra eramanen dutenak).

9. berrerekatzearen kasuan, ereduaren errentagarritasuna % 0,002 murriztu zelarik, eragin hori konpentsatzeko eta BETA berriz ere eskaintzaren % 11,328an kokatzeko, % 0,037 jaitsi behar izan zen eskaintzako murrizketa, eta, ondorioz, 2026ko urtarilaren 1etik aurrera, % 0,05 igo zen sozietate emakidadunari azpiegituraren kalitate eta kudeaketa kanona eta ur bolumenaren kanona ordaintzeko aplikatutako tarifa, aurrez onetsitako azken berrerekatzean (2020ko abenduaren 30ean) finkatutakoaren gainera; edo, gauza bera dena, % 49,28 handitu zen kanon horien ondoriozko tarifa, hasierako eskaintzarekin konparatuz gero, 2026ko urtarilaren 1etik aurrera.

3. Kontu-hartzailletza Nagusira bidalitako 9. berrerekatze-espeditentean zergatik ez zegoen barne-txosten juridikorik, INTIAren 2022ko berrerekatze-proposamenik eta 2023/07/27ko PwC-ren txostenik, eta nork agindu zuen halako gabezia?

2024ko irailaren 9ko 724/2024 Ebazpenaren bidez onetsi zen Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasearen handitzean interes orokorreko azpiegiturak eraikitze eta ustiatzeko herri-lanen emakidako kontratuaren 9. berrerekatzea, Administrazio-klausula Partikularren Agiriaren X. eranskina eguneratzearen ondorioz, Egaren adarrari dagokionez. Espediente osoa da, eta indarrean dagoen araudiaren arabera onetsi zen.

Espediente horrek ez du behar txosten juridikorik, baina Kontu-hartzailletza Nagusiak eskatu zuen, eta departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak txosten juridiko bat egin zuen 9. berrerekatzeari buruz, 2024ko abuztuaren 28an. Txosten hori parlamentari eskatzaileari bidali zitzaion PEI-00825ari zegokion dokumentazioan.

4. Zein egunetan egin zen 9. berrerekatzea babesten duen barne-txosten juridikoa? Txosten hori Kontu-hartzailletza Nagusiaren eragozpen-

ohar etengarriaren ondoren jaulki al zen? Baiezkoan, nola justifikatzen da horren baliozkotasuna, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 55. artikulua argitan?

9. berrerekatzeak ez zuen izan konponketarik, etengarririk zein ez-etengarririk.

5. Zergatik ez zitzaion Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoari bidali 9. berrerekatzea, 14/2023 Foru Dekretuaren 4.7 artikulua xedatzen duena gorabehera, eta zer organok erabaki zuen hori ez bidaltzea?

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren antolaketaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onesten duen 2023ko martxoaren 1eko 14/2023 Foru Dekretuaren 4.7 artikulua dioenari jarraikiz: "Era berean, kontratu oreka berrezartzeari buruzko erabakien inguruko txostena emanen du, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 194.2 eta 211.3 artikuluetan aurreikusitako kasuetan, obren emakidei eta zerbitzuen emakidei dagokienez, lehenik txostenak eman badira haien inguruan arestiko a) eta b) letrekin bat eginez, edo, txostenik eman ez bada, kontratuari erantzen bazaio haietan aurreikusitako elementuren bat", adierazi behar da ez dela aplikatzekoa espediente honetan, Kontratu Publikoen ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea baita Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasea zabaltzeko interes orokorreko azpiegiturak eraikitze eta ustiatzeko obra publikoaren emakidari aplikatzekoa zaion araudia.

Horrenbestez, ez dagokio espediente Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoari helaraztea.

6. INTIAk ba al zuen eskumenik Ega-4tik Ega-9ra bitarteko sei luzapenak baimentzeko, 12/2005 Foru Legearen 3.1.b artikulua arabera, eta izan al zen luzapen horiek aldeztu zituen aurretiazko txosten juridikorik?

INTIAk EGA 4, 5, 6, 7A, 8 eta 9 obrei dagokienez sozietate emakidadunari emandako luzapenen ildotik, kontuan hartu behar da administrazio-klausula partikularren baldintza-agiria (5. klausula) ikusita, kontratazio-organoaren eskumena dela (INTIA), eta ez dagoela Administrazioari ahalmen horren gainean esleitutako administrazio-ahalmenik (10. klausula).

7. Baldin INTIAk emandako luzapenek esku-menik ez badute edo deusezak badira, nola eraginen lioke horrek X. eranskineko egutegiari, 9. berrerekatze ekonomikoari eta Administrazioaren balizko ondare-erantzukizunari?

INTIAk eskumena du luzapenak emateko, aurreko erantzunean adierazi den bezala.

8. Berrets al dezake Gobernuak "INTIAren txostena – Ega-6 eta Ega-7 atzerapenak (2024ko apirila)" txostenak ez duela data eta sinadurarik, eta Administrazioari egotz dakizkikeen atzerapenak aitortzeko ahalmena duen administrazio-organo eskudun batek baliozkotu duela?

INTIAren txostenaren data (2024ko apirila) eta egilea titulu berean daude, eta Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako Departamentuko Herri Lanen Zuzendaritza Nagusiko Azpiegitura Berrien Zerbitzuak eta departamentu horretako Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketarako eta Gastuaren Kontrolerako Zerbitzuak baliozkotu zuten, 9. berrerekatzearen administrazio-espeditzea izapidetzean.

9. Nola justifikatzen du Gobernuak 9. berrerekatzea izapidetu izana emakidadunak formalki adierazi zuenean ez zuela ezagutzen INTIAren 2022ko maiatzaren 26ko berrerekatze-proposamena, eta ez zegoela proposamen horren esanbidezko ez eta isilbidezko onarpenik?

9. berrerekatzea 2024ko irailaren 9ko 724/2024 Ebazpenaren bidez onetsi zuen Foru Administrazioak, emakidadunari entzuteko izapidea barne.

10. Gobernuaren ustez, eta Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketako Zerbitzuak adierazitakoaren haritik, zeinak esan baitu onartutako tarifagehikuntzek "ez dutela finantza-ereduaren errealitatea islatzen", gertatu ahal izan al da behar ez bezalako aurrerapenak egin izana emakidadunari, edo kalterik egin izana Foru Ogasunari?

Ordaindutako tarifak urtero onesten dira Herri Lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, eta ontzat emandako emakida-kontratuan ezarritakoaren arabera kalkulaten dira, hau da, eskaintzakoak edo, kasuaren arabera, onetsitako azken berrerekatzearen hartuta eta KPIarekin eguneratuta, kontratuaren administrazio-klausula partikularren baldintza-agiriaren V. eranskinean jasotakoaren arabera. Beraz, ez da inola ere baieztatzen ahal tarifa horiek aplikatzeak bidegabeko ordainketak dakartzanik, baizik eta, horiek kalkulatzeko, emakidaren lege-esparruan ezarritakoa betetzen ari dela.

11. Zergatik bilatzen du 9. berrerekatzeak kontratura berriro % 11,328ko Barne Itzulketa Tasa eramatea, eta zer desbideratze zehatzek eragin zuten hura aldatzea? Adieraz bedi zer parte den Administrazioari egotz dakizkikeen atzerapenen ondoriozkoa eta zer txostenek frogatzen duten doikuntzaren proportzionaltasuna.

Horretan datza, hain zuzen ere, emakida hori berrerekatzea, kontratuari % 11,328ko TIRA itzulitzean. Emakidaren administrazio-klausula partikularren baldintza-agiriaren arabera, Foru Administrazioak haren babesean onetsitako berrerekatze orotan neurriak hartu behar dira kontratuaren oreka ekonomiko-finantzarioa berrezartzeko, eta plan ekonomiko eta finantzarioa berrikusi beharko da, oreka berrezarriko duten neurri batzuk sartzeko; hau da, proiektuaren BETA proiektuaren adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzan zehazten zena-rekin berriro berdinduko dutenak (kasu honetan, proiektuaren BETA eskaintzaren plan ekonomiko eta finantzarioan jasotako % 11,328ra eramaten dutenak).

9. berrerekatzearen kasuan egokitu ziren berrerekatze-kasuak emakidaren BETan sartzeak (administrazioari/emakida-emaleari egozten ahal zaizkion atzerapenak, XXVI-Ega 6 eta XXVI-Ega 7A sektoreei dagokienez) % 0,002ko jaitziera ekarri zuten proiektuaren errentagarritasunaren barne-tasan.

PwC Asesores de Negocios SLk eta Lurralde Kohesiorako Departamentuaren Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketarako eta Gastuaren Kontrolerako Zerbitzuak emaniko txostenek egiaztatzen dutenez, egokia da proposatutako doikuntzaren proportzionaltasuna, ereduaren errentagarritasuna % 0,002 murriztu zelarik, eragin hori konpentsatzeko eta BETA berriz ere eskaintzaren % 11,328an kokatzeko, % 0,037 jaitzi behar izan zen eskaintzako murrizketa, eta, ondorioz, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, % 0,05 igo zen sozietate emakidadunari azpiegituraren kalitate eta kudeaketa kanona eta ur bolumenaren kanona ordaintzeko aplikatutako tarifa, aurrez onetsitako azken berrerekatzean (2022ko abenduaren 30ean) finkatutakoaren gainetik; edo, gauza bera dena, % 49,28 handitu zen kanon horien ondoriozko tarifa, hasierako eskaintzarekin konparatuz gero, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera.

12. Eman al dezake Gobernuak Administrazioari egotz dakizkikeen atzerapenetan 2015 eta 2024 bitartean eragina izan zuten administrazio-jarduketa guztien kronologia osoa, datatua eta dokumentatua, barne harturik luzapenak, egutegi-aldaketak, ebazpenak, txostenak eta Departamentuaren administrazio-egintzak?

Nafarroako Ubidearen Ureztatzeko Eremuaren 1. fasea handitzeko interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeke eta ustiatzeko obra publikoen emakida-kontratuaren 4. eta 9. berrerekatzeei buruzko PEI-00825eko 1. galderari erantzuteko aurkeztu zen dokumentazioaren barruan aurkitzen ahal da atzerapenekin loturik eskatutako kronologia.

13. Nork hartu zuen 9. berrerekatzea izapidetzen jarraitzearen erabaki politiko eta administratiboa, are Kontu-hartzaitza Nagusiak esanbidez ohartarazi zuen arren ezen txosten juridikorik ez zegoela, luzapenetan INTIAk beharbada ez zuela eskumenik eta funtsezko dokumentaziorik ez zegoela? Adierazi ea erabaki hori Lurralde Kohesioko kontseilariari, Herri Lanetako zuzendari nagusiari ala Azpiegitura Berrien Zerbitzuko zuzendariari dagokion.

9. berrerekatzea behar bezala izapidetu da.

14. Nork agindu zuen Kontu-hartzaitzari bidalitako dokumentu-espeditentean ez jasotzea INTIAren 2022ko berrerekatze-proposamena eta 2023/07/27ko PwC txostena, are horiek 9. berrerekatzea justifikatzeko funtsezko dokumentuak izan arren? Adierazi ea agindu hori kontseilariak, zuzendari nagusiak edo Zerbitzuko zuzendariak eman zuen.

9. berrerekatzea behar bezala izapidetu da.

15. Egon al zen barne-ohartarazpenik, zerbitzu-oharrik, mezu elektronikorik, ahozko jarraibiderik edo komunikaziorik kontseilariaren, zuzendari nagusiaren eta Zerbitzuko zuzendariaren artean, Kontu-hartzaitza Nagusiaren ohartarazpenei jaramon egin gabe 9. berrerekatzea onartzearen arriskuei buruz? Baiezkoan, komunikazio horien kopiak aurkez bitza.

9. berrerekatzea Kontu-hartzaitza Nagusiaren jarraibideei men eginez onetsi zen. Kontu-hartzaitza Nagusiaren jarraibide horiek Lurralde Kohesiorako Idazkaritza Tekniko Nagusiaren erantzunarekin zuzendu ziren, Kontu-hartzaitzak espeditentearen fiskalizazio positiboko txostenean islatu zuen bezala, eta, beraz, 9. berrerekatzea izapidetu eta onetsi egin zen Kontu-hartzaitza Nagusiak planteatutako argibideak zuzentzat jo ondotik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00448. Galdera, onetsitako luzamendutik kanpo geratzen diren biometanizazio-plantetan ingurumen-babeserako neurri osagarriak ezartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak onetsitako luzamendutik kanpo geratzen diren biometanizazio-plantetan ingurumen-babeserako neurri osagarriak ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak atsegin handiz jakinarazten du, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak onetsitako luzapenetik kanpo gelditzen diren biometanizazio-instalazioetako ingurumena babesteko neurri osagarriekin loturik idatziz erantzuteko eginiko 11-25/PES-00448 galderarekin loturik:

Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak eginiko galderari dagokionez, hauxe jakinarazten da:

Teknika erabilgarri onenak aplikatzea

Nafarroako biometanizazio-instalazioen ingurumen-baimen integratuek badituzte teknika erabilgarri onenak (TEO), hain zuzen ere, hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzen dituen Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko 2018/1147 (EB) Betearazpen Erabakiak ezartzen dituenak.

Egiaztatzen ahal da ingurumen-baimen integratuaren ebazpen bakoitzak baduela eranskin espezifiko bat teknika erabilgarri onenak betetzen direla ziurtatzeko. Eranskin horretan teknika bakoitzaren aplikagarritasuna eta betetze-maila aztertzen dira, erabakian bertan ezarritako klausulek diotenari jarraikiz.

Hala ere, azpimarratu behar da erabakian jasotako teknika erabilgarri onenen eremutik kanpo, ingurumen-baimen integratuek babes-neurri osagarri hauek ezartzen dituztela:

– Usain-immisioaren muga-balioak:

Ingurumen-baimen integratuek 1,5 UOE/Nm³-ko immisio-muga ezartzen dute jendea bizi den inguru hurbilenetan. Muga-balio hori immisio-irizpide oso kontserbadorea da, Europarako babes goreneko nazioarteko estandarretan oinarritua.

– Trazabilitate-sistema GPSarekin

Digestatua aplikatzeko ekipoek GPS lokalizazioa izan behar dute, eta datuak telematikoki transmititu behar dira, ezinezkoa bada aldatzea, aplikazioaren jarraipena denbora errealean egin ahal izateko.

– Nitrogenoa kontrolatzea aplikatzeko garaian

Banaketa-ekipoek konduktibimetroak izan behar dituzte aplikatzeko garaian nitrogenoa kontrolatzeko, eta ziurtatu behar dute baimendutako dosiak betetzen direla.

– Piezometro-sarea

Instalazioek piezometro-sare bat izanen dute, eta egokiro egon behar dute kokatuta, balizko jariatze kutsatuak edo lixibiatuak lurlean infiltratzea kontrolatu eta detektatu ahal izateko.

– Lurzoruen aldizkako analisiak.

Digestatua kudeatzeko planek ezartzen dutenez, beharrezkoa da digestatoaren eta lurzoru hartzaileen aldizkako analisiak egitea (gutxienez 2 urtean behin).

Bestalde, Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuak hauxe jakinarazi du:

Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuaren eskumenen esparruan proposatutako ingurumen-inpaktuak prebenitzeko, zuzentzeko eta, kasuak hala eskatzen badu, konpentsatzeko neurriak kontsultaren xede diren biometanizazio-instalazioetarako formulatutako ingurumen-inpaktuari buruzko txosten bakoitzean jaso dira. Aurrerago zehaztuko dira.

Horietarako guztietarako ezartzen denez, aplikatu beharreko administrazio-baimenaren prozeduran (ingurumen-baimen bateratua edo ingurumen-baimen integratua) ezartzen diren baldintzen mende egonen dira proiektuak, ingurumen-kalitateari, baliabide-kontsumoari eta emisio-, isurketa- eta hondakin-sorreraren gaineko afektazioei dagokienez. Gainera, ohartarazten da sustatzaileek aplikatu beharreko berariazko araudian ezartzen diren baimen guztiak eskuratu beharko dituztela, eta, zehazki, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginean ezartzen direnak.

Tuterako lohiak tratatzeko instalazioari dagokienez, zeina jabari publiko hidraulikoan baitago, hauxe adierazten da: "Lurrazaleko eta lurpeko urei eragindako kalteei dagokienez, instalazio guztiak (Tuterako HUA, I. fasea eta II. fasea izapidetzen) Ebro ibaiaren lehentasunezko fluxu-eremuan eta uren zaintza-eremuan daudenez, arroko erakundeak (Ebroko Konfederazio Hidrografikoa) bere eskumenen arabera ezartzen duenaren mende gelditzen da proiektatzen den aldaketa".

1. Sesmako biometanizazio-instalaziorako ingurumen-baldintzak:

– Zuinketa egiten den bitartean, zerrenda eta marka ikusgarriz balizatuko dira obrek ukitutako eremu guztiak, barnean harturik osagarriak eta materialak biltzekoak. Ez da ibiliko makineriarik edo ibilgailurik landaretza naturala duten eremuetan.

– Zelaitze lanek ez dute ekarriko proiektatua baino altuera handiagoko lur-erazketarik edo betelanik (6,5 m). Ezpondarik sortzen bada, etzanak izanen dira, proiektaturikoa baino malda txikiagoarekin (ahal dela 2H/1V edo txikiagoa), haien goialdeak biribilduak izanen dira, eta lubetetako ezponden gainean gutxienez landare lurrezko 30 cm-ko geruza jarriko da.

– Lurra kendu edo hondeatu aitzinetik, obrek eragindako azalera guztietatik landare lurra kenduko da, gutxienez 30 cm-ko sakonerako profil batean (okupazio iraunkorreko edo aldi baterako azalera). Material hori horretarako hautatutako espazioetan pilatuko da, eta 2 m baino gutxiagoko altuera duten kabailoak osatuko dira. Lur-mugimenduen soberakinak ahalik eta gehien aprobetxatuko dira, eta obran bertan baliatuko dira. Obran erabiltzen ez diren soberako lurrak (proiektuaren arabera, 228 m³) hondakin-kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu, eta lehentasunezko helburua hurbileko espazio degradatuak lehengoratzeko izanen da. Lehengoratzeko lanetan erabiliko ez diren lurrak zabortegi baimendu batera lekutuko dira. Jakinarazten da lurren lekualdaketa eskatzen duten operazio guztiek Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko Hondakinen Atalaren txosten aldekoa beharko dutela.

– Ahal den guztietan, bideetatik eginen dira ur- eta energia-hornidurako kanalizazioak instalatzeko lan-kaleak eta zangak, edo berriro diseinatuko dira lan-eremuka, haien mugetako landarediari eragin gabe. Neurri hori bereziki aplikatuko da Ebroko Iraganbide Nagusiarekin bat datorren zatian. Ildo beretik, saihestu eginen da Errege Abeldidean zuhaitzak moztea.

– Instalazioen ingurunean obrak egikaritzeak ukituriko gainazal guztiak eta ur- eta energia-horniduraren kanalizazioek ukiturikoak harrotu eginen dira, harriak erretiratuko dira haietatik eta laborantzarako edo ereiteko prestatuko dira, larreei eragiten bazaie. Azkenik, malda ertainak dituzten gainazalen kasuan (lur-erazketako ezpondak eta lubetak), hidroereintzara joko da hazi belarkara eta zuhaixka autoktonoak nahasian direla, betiere proiektu-eremuko lurzoru- eta klima-baldintzetara egokituta.

– Ingurumen-dokumentuak adierazten duen bezala, proiektatutako landaketak eginen dira Sesmako 11. industrialdeko 200., 208. eta 209. lurzatie-tan, bertan hautatutako espezieekin (olibondoak, almendroak eta arteak). Horretaz gainera, sartu beharko dira tamariza (*Tamarix africana* edo *Tamarix canariensis*), Aleppo pinua (*Pinus halepensis*), karraskak (*Quercus ilex rotundifolia*), abariztia (*Quercus coccifera*) eta erromeroa (*Rosmarinus officinalis*). Landaketak instalazio guztien perimetrora zabalduko dira; hots, ekialdera, hegoaldera eta mendebaldera. Landaketak azarotik otsailera bitartean eginen dira, obrak amaitu ondotik, eta ureztatzea eta zainketak eginen dira, instalazioaren bizitza osoan egoera egokian egonen direla bermatzeko.

Gainera, landaketak instalazioen hesiaren kanpoaldean gelditzen badira, babestu eginen dira, aziendei kalterik ez eragiteko (hodi babesleak eta tutorea instalatzea).

– Lanak egin bitartean Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoan (139/2011 Errege Dekretua) jasotzen den espeziaren baten presentzia detektatzen bada, lanek kaltetuko luketena, berehala jarriko da jakinaren gainean Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzua, eta hark xedatzen duena bete beharko da.

– Karraskari eta bestelako animalien kontrola beharrezkoa bada instalazioen barnean, behar diren baimenak alde aurretik lortuta egin beharko da, eta bitarteko mekaniko eta biologikoak erabiliko dira, gutziz debekaturik dagoelako pestizida, intsektizida, errodentizida eta bestelako pozoiak erabiltzea.

Simaurrak eta gainerako hondakinak estalkipean jaso eta biltegitratuko dira, eta minden kasuan, berriz, andel estankoetan, proiektuak jasotzen duen bezala.

– Era berean, konpostatzen diren digestato solidoko metak estalkipean geldituko dira (teilapean edo erabat itxita). Alboko itxiturarik gabeko teilatue- kasuan, hormigoizko zokalo bat instalatuko da konpostaje-eremuaren perimetroan. Espezie oportunistak erakartzea saihestu nahi da, horiek aldi berean beste espezie harrapari batzuk erakartzen baitituzte.

– Bi baltsetan irteera-sistemak instalatuko dira, eta bi baltsen hormetan, polipropilenoazko geotestilaren estalduraren gainetik, plastikozko sare bat paratuko da (jarraitua edo tartekakoa, eta gutxienez gainazal osoaren 1/3 estaliko du); ertzean finkatuta eta atzealdean ainguratuta geldituko da. Baltsaren ertzaren eta itxituraren artean gutxienez metro bateko tarte utzi beharko da, sartzen diren hegaztien aukera izan dezaten hegan hasi eta esparrutik irteteko. Pertsonak erortzeko aukerari dagokionez, sokak paratuko dira barneko ezpondetan, eta haien barnean, berriz, flotazio-sistemak.

– Baltsak edukiera nahikoarekin diseinatuko dira, eta neurriak ezarriko dira salbuespenezko euri-aldietan ez dadin gertatu gainezkatzerik edo ustekabeko ihesik, Estellerriko Erriberako Igeltsuak KBEko instalazioen hegoaldean dauden amildegiei eragiten ahal dieten heinean.

– Estepako abifaunari mesede egiteko, sustatzaileak proposatutako konpentsazio-azalera handitu beharko da, eta, horrenbestez, gutxienez 25

hektareako konpentsazio-azalera izan beharko da ebazpen honen datan labore edo atsedendian dauden lehorreko laborantzarako, urteko erregimenaren eta txandaren arabera. Landarediaren gehiegizko garapena saihesteko, lurzatiak bizpahiru urtean behin landatuko dira gainazalean, azarotan, abenduan, urtarrilean edo otsailean. Lurzati horiek eremu lau, soil eta nagusietan kokatuko dira, inguruko estepako abifauna kontserbatzeko eremu kritikoen barnean. Nolanahi ere, lurzatiak aukeratzeko, kontsulta egiten ahal zaio Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuari, eta hari aurkeztu beharko zaio helburu horretarako azkenean erabiliko diren lurzati zerrenda, baliozkotu dezan. Zerrenda hori obrak hasi aurretik lortu beharko da. Gainera, egiaztatu beharko da badela lurzati horiek erabiltzeko eskubidea. Sustatzaileak jarraipen-txostena aurkeztuko du urtero, baldintza hori betetzen dela ziurtatzeko.

– Digestatzen banaketari dagokionez, eta katalogatutako estepako hegazi-espezieen populazioei ez eragiteko, kontuan hartuko da “Mindak, digestatza eta/edo simaurrak behar bezala kudeatzeko protokoloa” AC3 Arroitz-Los Arcos-Mendabia-Sesma estepako abifauna kontserbatzeko eremu kritikoa sartutako banaketa-planeko lurzatiaren (protokolo hori txosten honen III. eranskinean dago jasota). Sustatzaileak kontrol-sistema bat ezarri beharko du, modu frogagarrian egiaztatu ahal izateko estepako abifaunaren ugalketa-aldi kritikotik kanpo egiten dela eremu horietako nekazaritza-ongarritzea.

– Gorde egin beharko da ETRS89 572.752/4.698.516 koordenatu-puntuan (instalazioen hegoaldeko itxituraren ondoan) dagoen eskorta.

– Instalazioak eta baltsak mugatzen dituen hesian, proiektuaren arabera, ikusteko moduko begiztak paratuko dira, abifaunak talka egin ez dezan. Bihurdura soileko itxitura bat gomendatzen da, oinarrian gutxienez 30 cm lurperatuta, fauna oportunistak ez dadin barnera sartu, eta itxituraren azken harian saihestu egiten dira elementu zorrotzak.

– Linea elektrikoa baimentzeko izapideetan, ingurumen-inpaktuaren nahitaezko ebaluazioa lortu beharko da, eta bete beharrekoa izanen da, orobat, goi-tentsioko linea elektrikoetan abifauna

talka egiteki eta elektrokutatzetik babesteko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa.

– Argi kutsadura, argi arrotza eta faunaren gaineko eragina murrizteko, bete beharko da Kanpo argiteriako instalazioen efizientzia energetikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuan eta haren jarraibide tekniko osagarrietan (EA-01etik EA-07ra) jasotakoa, E1 sailkapena duten zonetarako.

– Ingurumena zaintzeko plan bat aurkeztuko da jardueraren funtzionamendu-faserako, basafauna instalazioetara erakartzea prebenitzeko neurri dagokienez.

– Egiaztatzen bada, sustatzaileak hartutako neurriak gorabehera, biometano- eta bioongarri-instalazioaren jarduerak areagotu egiten duela inguruko parke eolikoetan hegaztien eta kiropteroen talken ondoriozko hilkortasuna, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak inpaktu hori saihesteko egoki irizitako neurri guztiak ezartzen ahalko ditu, baita biometano- eta bioongarri-plantaren jarduera gelditzea ere, eta ez da eskatzen ahalko gelditze horrekin loturiko kalte-ordainik.

– Ustiategiaren zabalkuntza abian jartzeko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, titularrak txosten bat aurkeztu beharko du (memoria eta dokumentazio grafikoa), erakusteko betetzen direla obrek iraun bitartean gauzatu beharreko eta ingurumen-inpaktuaren txosten honetan jasotako neurri guztiak, hala nola aurreikusitako landaketak eta haien egoera, hesiaren ezaugarriak, konpostaje-eremua estaltzeko egitura edo baltsetako inpaktuak kontrolatzeko neurriak. Jarduera hasi eta urtebetera, dokumentazio idatzia eta grafikoa aurkeztuko da, sustatzaileak proposatutako neurrien inplementazioa eta digestato solidoen konpostaje-sistemaren kasuan duten eragin-kortasuna erakusteko.

– Obrak hasi aurretik, Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Erregistroaren, Ondasun Higiagarrien eta Arkeologiaren Atalaren aldeko txostena eduki beharko da, administrazio-baimena lortu baino lehen. Nolanahi ere, instalazio osagarriek, zabortegeiek edo bestelako okupazioek ez dute izanen eraginik Casilla de La Pinilla elementu etnografikoan, zeina 200 metrora baitago proiektua hartzen duten lurzatiaren hegoaldeko mugatik. Obrek dirauten bitartean aztarna arkeolo-

gikoren bat agertuz gero, aurkikuntza berehala jakinaraziko zaio zerbitzu horretako Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalari, bat etorri Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroren 22ko 14/2005 Foru Legearen 59. artikuluan eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 42.3 eta 44. artikuluetan ezarritakoarekin.

– Proiektuaren bizitza baliagarria bukatuta, instalazio guztiak deseginen dira, eta okupatutako lurak jatorrizko egoerara lehengoratuko dira.

2. Arroizko biogas-instalaziorako ingurumen-baldintzak:

– Instalazioa ezartzeko behar diren lur-mugimenduek eta proiektu osagarrietatik eratorritako indusketek (hornidura elektrikoa, ur-hornidura eta sarean injektatzeko biometanoa hustea) Nafarroako Gobernuaren Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalaren txosten aldekoa izan beharko dute.

– Abifaunari eragiten ahal zaizkion kalteak mugatzeko, lanak martxoaren 15etik ekainaren 15era bitartean eginen dira, ugalketa- eta umatze-alditik kanpo.

– Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuaren Espezieen Bulegoaren txostenarekin bat etorri, instalazioaren bizitza baliagarrian zehar luzatuko da Arroizko 7. poligonoko 562. lurzatiaren ingurumen-kudeaketa, zonako estepako habitata hobetzeko. Lurzati hori kudeatzeko hasieran proposatutako bi urteetan, lurzatiaren egoeraren jarraipena eginen da, eta azterketa bat eginen da estepako hegazti-espezieek lurzatian eta inguruan duten presentziari buruz. Bi urte horien ondotik, Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuak erabakitzen ahalko du beharrezkoa ote den jarraipen gehiago ezartzea edo beste zenbait ingurumen-neurri eskatzea instalaziotik gertu dauden estepako hegaztiak kontserbatzeari dagokionez.

– Instalazioaren urbanizazioan eta eraikuntzan aurreikusitako lur-mugimenduetatik, indusketetatik, lur-erazketetatik eta lubetatik lortutako lurak lurzatian bertan hedatuko dira, eta topografia naturalizatua osatuko da, kokalekuaren hegoaldean, mendebaldean eta iparraldean dauden landaretza naturaleko hegiei (larreak, abariztiak eta karraska-masak) eragin gabe. Lurzatiaren zabaltea ez bada bideragarria, hondakinen arloan indarrean dagoen legeriaren arabera kudeatuko

dira, eta baimendutako beste obra edo leheneratze-proiektu batera bideratuko dira.

– Hegi horiek obretatik babesteko, eta instalazioaren mugetan proiektuak eragindako naturaltasun-galera konpentsatuko duen ingurumen-balioko landaredi naturala sustatzeko, hautatutako kokalekuaren inguruko ezponden goiko aldetik gutxienez 5 metrora egonen dira urbanizatu beharreko eremua eta instalazioaren itxitura.

– Sortzen diren lur-erazketako eta lubetatiko ezpondak inguruko berezko belar- eta zuhaixka-espezie autoktonoekin erein edo hidroerein behar dira. Arroizko 3. poligonoko 988. lurzatiaren mendebaldean sortzen den lubetaren oinean, baso eta ibaiertzetatiko berezko espezieak landatuko dira, bereziki Bueno ibaiaren ingurune hurbilean hazten direnak bezalakoak.

– Landaketa horiek eta beste baimen batzuk betetzeko eskatzen ahal direnak ureztatu eta zaindu eginen dira, instalazioaren bizitza osoan egoera egokian egonen direla bermatzeko. Gainera, hesien kanpoaldean gelditzen diren landaketak babestu eginen dira, aziendak erasan ez ditzan.

– Natura 2000 Sarean eta/edo Estepako Hegaztiak Kontserbatzeko Eremu Kritikoetan katalogatutako habitat eta fauna-espezieen gaineko afektazioak minimizatzeke —hots, digestatoak kudeatzeko planetik eratorritakoak, kasuaren arabera, espazio horien barneko lurzatietan—, txosten honen III. eranskinean jasotako orientabideei jarraituko zaie.

– Karraskari eta bestelako animalien kontrola beharrezkoa bada instalazioen barnean, behar diren baimenak aldeztatik lortuta egin beharko da, eta bitarteko mekaniko eta biologikoak erabiliko dira, guztiz debekaturik dagoelako pestizida, intsektizida, errodentizida eta bestelako pozioak erabiltzea.

– Instalazioaren kanpoko argiztapenak kanpoko argiztapen-instalazioetako energia-efizientziari buruzko Erregelamendua (1890/2008 ED) eta energia-efizientziari buruzko EA-01 Jarraibide Tekniko Osagarria beteko ditu.

– Proiekturako behar diren linea elektrikoa eta ur-hornidura lurpean egin beharko dira, landa-bideetatik barrena.

– Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen II. eranskinean jasotako proiektu-mota bat denez, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin beharko da

gasa husteko eroanbidea eremuko sarean injektatzeko, betiere organo eskudunak baimena emateko aurkezten denean. Nolanahi ere, aurkeztutako dokumentazioan jasotakoaren antzeko trazadura hartu behar da ingurumenaren ikuspegitik aukera mesedegarrientzat, eta inguruko landa-bideak zeharkatu behar dira.

– Proiektuaren bizitza baliagarria bukatuta, instalazio guztiak deseginen dira, eta okupatutako lurak jatorrizko egoerara lehengoratuko dira.

– Oliba-patsa eta, kasuaren arabera, hondakin likidoak eta sortutako digestato likidoak biltegitzeko putzuek itxitura bat izanen dute, basa-fauna erortzea eta itotzea eragozteko, bereziki ornodun txiki eta ertainak.

– Jarduera abian jartzeko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, titularrak txosten bat aurkeztu beharko du (memoria eta dokumentazio grafikoa), ingurumen-inpaktuaren txosten honetan jasotako neurri guztiak betez, bereziki: Arroizko 7. poligonoko 562. lurzatian konpentsazio-neurria abian jarri izanaren egiaztagiria, landareztatze-plana, eta urmaeletan ornodunak erortzea eta itotzea saihesteko neurriak.

3. Tuterako lohien instalazio zentralizatuaren ingurumen-baldintzak (II. fasea, lohien tratamendua HUAN)

– Ondare historikoari buruz indarrean den legedia betez, obrak egin bitartean hondar arkeologikorik agertuko balitz, Nafarroako Gobernuaren Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalari horren berri emanen zaio (emaila: arqueologia@navarra.es).

– Obrek iraun bitartean, itxi egingen da ukitutako ubideetako ur-pasabidea, solidoak eta ustekabeko isurketak ez daitezen eraman ibaiaren ibilgura, eta, hala, ez dadin izan erasanik ibaiko eta ibaier-tzeko ekosisteman.

– Obrak hasi aurretik, faunan aditua den pertsona batek desmuntatuko diren iparraldeko erretena eta eraikin txikiak gainbegiratuko ditu bermatzeko ez dagoela intereseko edo katalogatutako faunaren arrastorik eta, izanez gero, fauna talde horiei kalteak galarazteko neurriak zehaztuko ditu.

– Biso europarra babesteko, kontuan izanik “galzorian” dagoen espezieentzat dagoela katalogatuta otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuaren

arabera, babes bereziko araubidean dauden espezie basatien zerrenda eta eremuan egoten ahal diren espezie mehatxatuen Espainiako katalogoa garatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a. Birjarriko den erretenaren zatia basa faunarentzako tranpa bihurtzea galarazteko, batez ere, bisoi europarrarentzako, ahal bada ez da hormigoiz estaliko eta ertzak egoera naturalean utziko dira. Hormigoiz estaliko proiektatuz gero, ahal bada ebakidura trapezoidala izanen du eta bi ertzak egoera naturalean utziko dira. Azkenean, U formako ebakidurakoa proiektatzen bada, erretenaren zati berriak fauna mota horrentzako hiru irteera eta ihes egitura izanen ditu, elkarren artean distantziakideak izanen direnak. Hori diseinatzeke kontsultatzen ahalko da “Jarraibide eta gomendio teknikoak bisoi europarra eta haren habitatak zaintzeko” dokumentua (Nafarroako Gobernua. Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, SA. 2019), nik.es/es/publicaciones helbidean eskuragarri. (5. kapitulua, 3. irudia). Internet: <https://www.gan>

b. La Mosquera ubidearen alboko jarduketa (56 metro inguruko tartea, planta zentralizatuaren hego-mendebaldean estaltzea proposatzen dena) bisoi europarraren habitat bereizgarria da; beraz, espeziearen ugalketa-aldia ez oztopatzeko, irailaren 1etik martxoaren 31ra bitartean egingen dira ibaiertz eta ubideetan sastrakak garbitzeko lanak. Epe hori igarotakoan obrak hasi ez badira, aldizkako mantentze-lanak egingen dira, espezie hori instalatu ez dadin.

c. Plantaren hego-mendebaldeko La Mosquera erretenean estaltzea proposatu den 56 metro inguruko zatiaren ertzetan ere begiratuko da bisoi europarraren presentziarik dagoen eta, izanez gero, obren egutegia mugatuko da espezie hori babesteko.

d. Plantaren II. fasearen hego-ekialdetik igarotzen den La Mosquera erretenaren gainerakoan, bisoi europarrarentzako bi ihesbide instalatuko dira, bata estaliko den zatiaren amaieran eta bestea plantaren ekialdeko muturrean.

– Lanak egitean, landaredia babesteko neurriak zorrotzko dira, eta, ahalik eta kalte gutxien egiteko, jarduketarako ezinbestekoa baino ez da egingen. Obrek ukituriko landaredia kentzeko, lehengoratu egin behar da. Hori dela eta, bidezkoa da:

a. Obrek ukituriko landaredi naturala berreskuratzea Tuterako 29. poligonoko 349. lurzatiaren ipar-ekialdeko muturraren zati batean (instalazioak dauden lurzatia, guztira 0,15 ha), eta erriberako landaredia landatzea lurzati horren iparraldeko muturrean edo Ebro Ibaia KBEaren barruan. Lehen faseko ondotik mantendu diren urbanizazioaren iparraldeko zuhaitzak (intxaurreondoak, pikondoak, makalak...) proposatutako lorategian integrazten saiatu beharko da.

b. Ingurumen-dokumentuan proposatutako landareztatze-neurriak interesgarriak dira eta ikuspantaila gisa funtzionatzen dute, nahiz eta lorategi-itxura ematen duten. Hori dela eta, komenigarritzat jotzen da, gainera, ingurunean jarduketa integratua goak egitea, eta, horretarako, erriberako zuhaitzak landatzea 349. lurzatiaren iparraldeko muturrean edo poligono bereko 88. eta 91. lurzatietan, baita KBEaren barnean erriberako zuhaitz-landaredia indartzeko batez besteko osagarriak egitea ere, ibilguaren eta zuhaitzik gabeko eremu edo baoen arteko zerrenda estu batean. Landaketak gomendatzen dira lurzati hauetan, harik eta 0,5 ha-ko azalera estali arte: Tuterako 29. poligonoko 17., 65., 89., 98., 126. eta 127. lurzatietan.

c. Adierazi behar da *Salix nigra* espeziea ez dela autoktonoa, eta, horren ordez, *Salix alba* erabiltzen ahal da, espezie hori erriberako landarediaren parte baita.

d. Tamarizez estalitako eta materiala biltzeko erabilitako eremua lehengoratzea, 349. lurzatiaren hego-ekialdean. Proposatzen da landaketak egitea tamarizekin (*Tamarix gallica*) zuhaiztietan edo modu perimetralean.

e. Uraren Kalitatearen eta Obra Hidraulikoen Atalaren txostenaren arabera, landaketa horiek egiteko instantzia bat aurkeztuko zaio Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoko Zerbitzuari, eta landaketaren alderdi tekniko guztiak deskribatzen dituen proiektu edo memoria tekniko bat erantsiko da. Dokumentazio hori obrak hasi aurretik aurkeztuko da (gutxienez 3 hilabete lehenago), eta Zerbitzuaren adostasuna izan beharko du. Lanak amaitu ondotik eginen da landaketa (edo aurrez, obrei eragiten ez badiete) eta geldialdi begetatiboan (udazkenaren edo neguaren amaieran).

f. Horretaz gainera, behar bezala leheneratuko dira eta landareztatze egokirako belar espezie autoktonoz ereinen dira plantaren elementuen arteko espazio urbanizatu gabeak, batez ere La Mosquera erretenaren iparraldeko zerrenda, lubakiko bidetik nekazaritza biderako sarbide berriaren inguru eta proiektatutako landaketetarako lurzatiak.

– Leku horretan ugariak diren kanaberen kasuan, aireko zatia eta lurpekoa erretiratuko dira, eta hondakinak kudeatzaile baimendu bati helaraziko zaizkio (espezie exotikoa eta inbaditzailea da). Orobat, aukeran izanen da erretzea, Sua erabiltzearen 222/2016 Foru Aginduaren eta haren ondoko aldaketan arabera; ezpaltzea oso fina balitz bakarrik litzateke balekoa, bestela errizoma zatiak utziko lituzke. Era berean, posible da hondakinak metro bat baino gehiagoko sakoneran eta plastikoz estalita lurperatzea. Ikusi 5.3 apartatua: “Kanaberadiak ezabatzean sortutako hondakinak kudeatzea”, “Arundo donax edo kanabera arrunta maneiatzeko eta kontrolatzeko oinarriak” eskuliburuan, zeina Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak babestua baita (https://www.miteco.gob.es/content/dam/mites/es/eneam/grupos-de-trabajo-yseminarios/red-parques-nacionales/Bases%20para%20el%20manejo%20y%20control%20de%20Arundo%20donax_tcm30-169319.pdf).

– Gainerako landare-hondarrak (kanaberak ez direnak) lekuan bertan birrinduko dira, edo hondakinen kudeatzaile baimendu bati helaraziko zaizkio. Erre ere erretzen ahal dira, sua erabiltzearen 222/2016 Foru Aginduaren eta haren ondoko aldaketan arabera.

– Hondeaketatik sobratzen den lurra (10.000 m³) baimendutako kudeatzaile batek eramanen du, eta horren helmuga lehenetsiak izanen dira inguruko espazio degradatuak leheneratzea, ondoren balioztatzeko “lurren poltsa” edo, halakorik ez bada, baimendutako zabortegia.

– Espresuki debekatuta dago La Mosquera ubidean edonolako isurketak egitea, eta arreta berezia jarriko da substantzia kutsagarriak erabiltzean, hala nola gasolioa, olioak eta hormigoia. Ibilguan hormigoia freskoa botatzeak afektazio kaltegarriak izaten ahal ditu arrain-faunan.

– Kanpoko argiei eta kutsadura luminikoari dagokienez, adierazi behar da planta egungo araztegiaren inguruko eremu batean dagoenez, argi-kutsaduraren aurkako E3 babesgune batean dagoela. Hala ere, Ebro Ibaia kontserbazio bereziko eremuaren mugakide denez (Natura 2000 Sarea) argi kutsaduraren aurkako E1 babesgune gisa sailkatuko da. Hori horrela, instalazioa eraikitzeko proiektuak kanpoko argiteriarekin lotutako irizpideak izan beharko ditu naturagune horren aurkako afekzioak saihesten direla bermatzeko (argi kutsadura, argi arrotza eta faunarekiko afekzioa).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00449. Galdera, Pérez Capapay jaunak Nafarroako Gobernuko kontu-hartzaile nagusi denetik altxatutako eragozpen-ohar etengarriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak Pérez Capapay jaunak Nafarroako Gobernuko kontu-hartzaile nagusi denetik altxatutako eragozpen-ohar etengarriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Hauxe jakinarazten du Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak idatziz eginiko galderarekin loturik, legealdi honen hasieratik eginiko eragozpen-ohar etengarriei dagokienez (11-25/PES-00449):

1. Zenbat eragozpen-ohar etengarri altxatu ditu Pérez Capapay jaunak Nafarroako Gobernuko kontu-hartzaile nagusia denetik? Zer espediente dira horiek?

Honako 50 espediente hauek jaso dira 2023ko irailaren 14tik 2025eko abenduaren 31ra.

Ekitaldia zk.	Espedientearen izenburua	Zenbatekoa	Kontu-hartzailetza (user fin)	Kontabilitate-fasea	Kontabilitate-zentroaren deskribapena
2024	20000545 30028-0-22/25 LIZASOAIN DOT.CONCE. CONSTRUCC. CASA DEL CONCEJO	66.595,05	X043928	AD	Toki-administrazio KZ
2024	098.22.003 MRR ENCARGO TRACASA ADMINIS ELECTRONICA PAGO 1TR				
2024	20000629 2024	40.347,43	X043928	OP	Toki-administrazio KZ
2024	20000655 &NASUVINSA ENCARGO OFICINA TÉCNICA ESTRAT DESPOB	439.491,00	X043928	A	Toki-administrazio KZ
2024	20000670 &CEDERNA-GARALUR DINAMINACIÓN PLAN PIRINEO 2024	95.000,00	X043928	A	Toki-administrazio KZ
2024	20000872 &(E)032.24.017 CABREDO REFOR.EDIFIC.PROPIE.MUNI.	110.000,00	X043928	A	Toki-administrazio KZ
2024	20001080 &032.24.021 ARMAÑANZAS ADEC.EDIF. BAR Y TIENDA	80.000,00	X043928	A	Toki-administrazio KZ
2024	140001675 &4290-SUBVENCIÓN ORFEÓN PRESTAMO INMOBILIARIO 2024	15.000,00	X038433	A	Kultura eta Turismoko KZ
2025	140000725 &4290-SUBVENCIÓN ORFEÓN PRESTAMO INMOBILIARIO 2025	15.000,00	X038433	A	Kultura eta Turismoko KZ
2025	140001291 &4290-SUBVENCIÓN ORFEÓN PRESTAMO INMOBILIARIO 2025	15.000,00	X038433	D	Kultura eta Turismoko KZ
2023	60002261 ITINER. PEATONAL Y CICLISTA ZIZUR MAYOR - PAMPLONA	955.712,96	N222536	A (R)	Herri Lan, Garraio eta Komunikazio KZ
2024	60001156 RPOP 44/2016	153.045,45	N222536	ADOP	Herri Lan, Garraio eta Komunikazio KZ
2025	190003471 BIDEAN 2025/06/01 - 2025/11/30	2.139.666,29	X093087		Osasunbideko Zerbitzu Zentralen KZ
2025	190004144 GASTOS FUNCIONAM ORG SINDICALES 12-2024 A 11-2025	45.900,00	X036681	AD	Osasunbideko Zerbitzu Zentralen KZ
2025	190004935 A.G. ENCARGO BIDEAN 2026	26.387.624,00	X093087	AD (R)	Osasunbideko Zerbitzu Zentralen KZ
2024	30000581 PROG 6 31/1-0008/19-58 VPO ARREND PROTEG BARAÑAIN	2.427.950,00	X043928	A	Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduko KZ
2024	30000582 PROG 6 31/1-0007/17-47 VPO ARREND PROTEG RIPAGAINA	2.067.869,00	X043928	A	Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduko KZ
2024	30000589 PROG 6 31/1-0023/22-32 VPO TUTEL ARR PROT PAMPLONA	1.174.865,00	X043928	OP	Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduko KZ
2024	30002195 2025eko LAN-POLTSARAKO DEIALDIA	250.000,00	X043928	A (R)	Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduko KZ
2025	30000538 NASUVINSA transferentzia 4 sustapen finantzatzeko	9.000.000,00	X043928	ADOP	Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduko KZ
2024	350002234 SUBV.AYTO ESTELLA PROYECTO CENTRO DIA Y ESPACIO PO	30.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002236 SUBV.AYTO VILLAFRANCA.PLATAFORMA ELEVADORA RESIDEN	30.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002237 SUBV.AYTO FITERO MEJORAS EN RES.SAN RAIMUNDO	25.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ

2024	350002239	SUBV.AYTO AYEGUI.PROYECTO CENTRO DE DIA	25.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002240	SUBV.AYTO OLITE. INSTALACION PERGOLA	10.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002241	SUBV.RES.NRA.SRA.GRACIA DE TUDELA. EKIPAMENDUA	12.100,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002243	SUBV.AYTO. OCHAGAVIA. ADECUACION RES.VALLE	350.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002244	SUBV.AYTO.EULATE.ELIMINACION BARRERAS RESIDENCIA	60.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002245	SUBV.AYTO.CASTEJON.AIRE ACONDICIONADO EN RESIDENCI	50.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002246	SUBV.AYTO.CORELLA.AISLAMIENTO TERMICO EN RESIDENCI	44.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002247	SUBV.AYTO.CARCASTILLO.VEHICULO PARA LA RESIDENCIA	40.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002248	SUBV.AYTO.ANSOAIN.COMEDOR COLECTIVO PARA MAYORES	30.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002249	SUBV.AYTO. BASABURUA. ADAPT LOCAL CENTRO AT.DIURNA	200.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002253	SUBV.FUNDACION ADISCO. OBRAS DE APARTAMENTOS	230.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2024	350002546	SUBV.AYTO SARTAGUDA EQUIPAMIENTO CENTRO DIA	100.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001264	SUBV AYTO BARAÑAIN CENTRO DIA	10.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001265	SUB.FUNDACION RESIDENCIA SAN JOSE AEROTERMIA	20.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001266	SUBV AYTO CORELLA ENERGIA SOLAR EN RESIDENCIA	30.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001267	SUBV AYTO RIBAFORADA CENTRO DIA	105.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001268	SUBV AYTO RIBAFORADA PROYECTO RESIDENCIA	75.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001269	SUBV AYTO GUESALAZ PROYECTO CENTRO SOCIO DEPORTIVO	60.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001270	SUBV AYTO LESAKA RENOVACION ASCENSOR RESIDENCIA	57.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ

2025	350001271	SUBV AYTO OTEIZA INSTALACION ESPECIALIZADA MAYORES	30.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001272	SUBV AYTO VILLAFRANCA RENOVAR ASCENSOR RESIDENCIA	25.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001273	SUBV AYTO SANGUESA CAMAS RESIDENCIA S.VICENTE PAUL	25.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001274	SUBV TASUBINSA SAN ADRIAN ELIMINAR BARRERAS	50.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350001275	SUBV ADEMNA REFORMA CENTRO DIA Y AMBULATORIO	50.000,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2025	350002424	& Zuzeneko emakida G31649072 ES ASOCIACION EUNATE	165.469,00	X045938	A	Gizarte Gaiak, Familia eta Gazteria eta Nafarroako Mendetasun Agentzia KZ
2023	90001381	&0012-3611-2023-000034 Transf.Nasertic.Medic.Perso	150.000,00	X036225	D	Informatika, Telekomunikazioak eta Berrikuntza Publikoa KZ
2023	90002386	&Aport. fondos Fund.CENER proy. I+D+i	2.484.757,89	X036225	D	Informatika, Telekomunikazioak eta Berrikuntza Publikoa KZ
2023	90002820	& CEINI 2024ko laguntzak kudeatzeko enkargua	116.930,03	X036225	AD (R)	Informatika, Telekomunikazioak eta Berrikuntza Publikoa KZ

Nolanahi ere, beharrezkoa da Gizarte Gaietako, Familiako eta Gazterriko Departamentuaren eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren dirulaguntzak baimentzeko "A" espedienteak aipatzea; izan ere, dirulaguntza izendunak dira, eta kontu-hartzailletza delegatuaren ustez ez da betetzen Gizarte Zerbitzuen Foru Legearen 49. artikuluan Nafarroako gizarte-zerbitzuen plan estrategikoei buruz xedatutakoa. Kontu-hartzailletza Nagusi honek berretsi egin du aurreko legealdiko irizpidea, irizten baitio plan estrategiko plangintza-tresna ez-araumaileak direla eta Nafarroako Gobernuari dagokiola horiek onestea. Beraz, ez zaie aplikatzen ahal Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legean izenez aurreikusitako dirulaguntzei, horietan Foru Komunitateko Administrazioak nahitaez bete behar baitu aurrekontu ekitaldi bakoitzerako Parlamentuak helarazitako agindua.

2. Kontu-hartzailletzaren eragozpen-ohar etengarrien zenbat txosten egon dira legealdi honen hasieratik gaur arte?

Kontu-hartzailletza delegatuak eragozpen-ohar etengarrien 74 txosten jarri ditu, eta Kontu-hartzail-

tza Nagusiak, berriz, 12. Orotara, 86 eragozpen-ohar etengarri.

3. Zenbat altxatu ditu kontu-hartzailletza nagusiak?

Lehenengo galderan erantzunda dago, Pérez Capapay jauna baita Kontu-hartzaille nagusia legealdi berritik.

4. Altxatu ez direnetatik, zenbatetan hartu du bere gain gobernuak kontu-hartzailletzaren irizpidea?

Baliogabetu egin dira Kontu-hartzailletza Nagusiak berretsitako kontu-hartzailletza delegatuaren eragozpen-ohar etengarriak dituzten espediente guztiak, eta, beraz, Gobernuak bere gain hartu du esku hartzeko irizpidea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00450. Galdera, familiako medikuen eta pediatren lekualdatzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak familiako medikuen eta pediatren lekualdatzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak haxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-25/PES-00450):

Medikuntzako eta pediatriako lekualdatzeak egin ez izanaren arrazoia zera da, lekualdaketa horiek une honetan egiten baditugu, profesionalen

defizit handiena duten eremu berberak estali gabe gelditzeko arriskua izanen genukeela, hala nola Azkoien, Zarrakaztelu, Erriberri-Caparroso (Iruñea inguruan), San Adrian (Lizarra aldean) eta Valtierra (Tutera eremuan).

Hori dela eta, horiek erabat (edo gehienbat) estaltzea bermatzeko aukera gehien ditugunerako dago aurreikusita, kontuan izanik laster sartuko direla egoiliarak (horiek, gainera, izena eman eta plazak aukeratzen ahalko dituzte otsailaren lehen hamabostaldian, egoitza maiatzean eta uztailan amaitzen dutenerako). Horretarako, harremanetan jarri gara lekualdaketa horiek egin ondok libre geratzen ahal diren profesionalekin, eta aurreko amaitzen diren egoiliarrekin ere jarriko gara harremanetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00451. Galdera, itxaron-zerrenden datuak atzera begira doitzea eragozten duten arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak itxaron-zerrenden datuak atzera begira doitzea eragozten duten arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-26/PES-00451):

Eginiko galderari dagokionez, komeni da zehaztea 2025eko ekainean gauzatutako aldaketa ez zela izan itxaron-zerrenda estrukturalako zenbaketatik bost espezialitate zehatz puntualki kanpoan uztea, baizik eta indarrean dagoen arau-esparrua homogeneoki eta osorik aplikatzea kanpo-kontsulten espezialitate guztiei, 21/2010 Foru Dekretuan ezarritakoren arabera.

Ordura arte, informazio-sistemak ez zituen bereizten sistematikoki eta araudiari egokituta berme-eskubidea duten itxaron-zerrendako egoerak eta eskubiderik gabeko egoerak (zerrenda ez-estrukturala). 2025eko ekainetik aurrera, lehenbizikoz hasi zen arau-kalkulu integral bat, lege-irizpideak espezialitate eta hitzordu guztiei aplikatzeko, tipologia edozein dela ere.

Hori dela eta, teknikoki ez da zuzena, ezta metodologikoki bideragarria ere, aurreko zifrak atzera begiratzuz “birkalkulatzeko” eta aipatutako bost espezialitateei dagozkien hitzorduak besterik gabe deskontatzea. Kalkulu zorrotza egin nahi izanez gero, gainera, aurreko hilabeteetako bakoitzean zerrenda ez-estrukturalako egoeran zeuden

hitzordu guztiak identifikatu eta birsailkatu behar ko lirateke (adibidez, itunpeko zentrora bideratzeari uko egiteagatik, profesionala aldatzeko eskatzeagatik, borondatezko atzerapenengatik edo araudian aurreikusitako beste arrazoi bazuengatik).

Itxaron-zerrendaren kalkulua hilean behin eta puntualki egiten da, hil bakoitzaren 1ean, eta erreferentziatzen hartzen da aurreko eguneko hitzordu bakoitzaren egoera administratiboa eta asistentziala. Une horretan, hitzordu bakoitza bere arau-egoeraren arabera sailkatzen da (berme-eskubidearekin edo gabe). Prozesu horren emaitza ez da biltegitzen pazientearen maila indibidualean, baizik eta modu agregatuan, ospitalearen, espezialitatearen, unitatearen eta agendaren arabera, eta ateratzen diren guztizkoak baino ez dira gordetzen.

Hitzordu baten arau-egoera hilabete batetik bestera aldatzen ahal denez —adibidez, estrukturala izatetik ez-estrukturala izatera edo alderantziz— eta 2025eko ekainaren aurreko datu historikoak ez zirenez kalkulatu edo biltegitatu arau-logika bereizi horrekin, ez dago datu-baserik aurreko hilabeteetako hitzorduen arau-sailkapena atzera begira berreraikitzeke, fidagarritasunez eta berme teknikoekin.

2025eko ekainetik, sistemak hileko informazio bereizia du itxaron-zerrenda estrukturalaren eta ez-estrukturalaren artean, indarrean dagoen araudiaren arabera kalkulatu, eta, horri esker, posible da datuen etorkizuneko gardentasuna, homogeneotasuna eta konparagarritasuna bermatzea, baina eragotzi egiten du atzera begirako berrikuspenera, ez bailitzateke izanen ez teknikoki sendoa, ez metodologikoki baliagarria.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00452. Galdera, suizidioaren prebentziorako programa Iruñeko espetxean aplikatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak suizidioaren prebentziorako programa Iruñeko espetxean aplikatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako kontseilariak haxe jakinarazten du, Nafarroako Parlamentuko EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuari idatziz erantzuteko eginiko 11-25/PES-00452 galderari loturik:

Espetxeak eskumen osoa du askatasunaz gabetutako pertsonekin esku hartzeko programak antolatzeko, bultzatzeko eta koordinatzeko.

Gaur egun, Barne Ministerioaren mendeko Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak dauka Iruñeko espetxearen eskaerari buruzko edozein txosten egiteko eskumena.

Galdera horiei dagokienez, Espetxeetako Idazkaritza Nagusiko Erakunde Harremanetarako eta Lurralde Koordinaziorako Zuzendariordetza Nagusiari zuzendu behar zaizkio (eta, kasuaren arabera, erantzun).

Hori da Zerbitzu honek jakinarazten ahal duen guztia, Nafarroako Gobernuak programa horri dagokionez duen erantzukizunari buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako kontseilaria: Inmaculada Jurío Macaya

11-25/PES-00453. Galdera, EIBZ Ezpeleta Jauregira eramateko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak EIBZ Ezpeleta Jauregira eramateko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00453 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

EIBZ Ezpeleta Jauregira eraman da, bere erreferentziako unitate teknikoarekin batera —hau da, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua—, helburu gisa harturik lan-dinamikak optimizatzea Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoaren eta Euskara Atalaren EGaren Bulegoarten artean, baita EIBZko irakasleen artean ere.

Lekualdaketa 2026ko urtarrileko azken astean egin da.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua eta haren mendeko EIBZ zentroa Ezpeleta Jauregira eramateko erabakia ez da negoziatu.

2022an, aztertu zen zentro berri bat eraikitzea Burlatako eta Uharteko Udalek partekatutako lurzati batean Zubiarte Euskaltegirako, EIBZrako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialerako. Hala ere, ekimen horrek ez zuen aurrera egin. 2026rako EH Bildu Nafarroarekin egindako aurrekontu-akordioak jasotzen du Uharteko Udalak beste udal-erabilera batzuetarako baliatu behar duela bi zentroyen egoitza den eraikina (udal hori

da, hain zuzen, eraikinaren jabea). Hezkuntza Departamentuak erabaki horren testuinguruan kokatzen du lekualdaketa.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak EIBZren premien zerrenda egin du, bai espazioari eta altzariei dagokienez, bai ekipamendu informatikoari dagokionez, eta Hezkuntzako Azpiegituren Eta Teknologien eta Hezkuntzako IKT Azpiegituren Zerbitzuekin landu ditu, lan-dinamika guztiak eta eskaintzen diren zerbitzuak bermatzeko.

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00454. Galdera, Nafarroako arte eszenikoetako ikasketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Nafarroako arte eszenikoetako ikasketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00454 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Arte Eszenikoen arloko prestakuntza-eskaintza zabaltzeari buruz planteatutako gogoetei dagokienez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak adierazi du, sare publikoari loturik, egungo plangintzan ez dela aurreikusten prestakuntza-

eskaintza berririk sartzea. Sare pribatuari dagokienez, Hezkuntza Departamentuak 2023-2027 aldirako akordio programatikoan ezarritakora mugatu behar du. Akordio horrek, konpromiso hau ezartzen du 5. atalean (Jakintza, Hezkuntza eta Aukera Berdintasuna): kontzertuen indarraldia betetzen den heinean, derrigorrezkoaren ondoko etapan itunak murrizteko aukera aztertzea eta bultzatzea. Beraz, hitzarmen berriak sortzeko edo ikastetxe pribatuekin lankidetzak berriak ezartzeko muga izanen du, eta, horrenbestez, ez da izaten ahalko finantzetarik horrelako zentroetarako.

Ikasleei laguntza ekonomikoa emateko formulak dagokienez, badira Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren eta autonomia-erkidegoen zenbait beka eta laguntza, zeinak urtero deitzen baitira ikasturte guztietarako, irakaskuntza arauak egiten dituzten ikasleentzat, ikastetxearen izaera edozein dela ere (publikoa edo pribatua).

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00455. Galdera, gaitako ikasle eta irakasleei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak gaitako ikasle eta irakasleei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00455 galdera idatzari dago-kionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

– Hezkuntza Departamentuak dituen datuen arabera, zenbat gaita-ikasle eta -irakasle daude Nafarroan (ikastetxe eta ikasturte bakoitzeko datuak eskainta)?

2025/2026 ikasturtea	
Musika-eskola	Gaita-ikasleak
Ablitas	10
Altsasu	3
Artaxoa	1
Buñuel	0
Burlata	20
Zarrakaztelu	3
Castejón	8
Cintruénigo	2
Corella	11
Lizarra	24
Ezkaroze*	13
Garralda	16
Irurtzun	8
Martzilla	9
Milagro	8
Murchante	19
Erriberri	8
Azkoien	10
Gares	18
Ribaforada	9
Erronkari	0
San Adrián	6
Alesbes	0
GUZTIRA	206

* 2024/2025 ikasturteko datuak (eskuragarri dauden azkenak)

2024/2025 ikasturteko irakasleak	16 irakasle
----------------------------------	-------------

– Zein dira gaur egun gaita-irakasle izateko titulua lortzeko aukerak Nafarroan?

Gaur egun, ez da lortzen ahal “gaita” musika-tresnarekin lotutako titulaziorik Nafarroan, titulaziora bideratutako irakaskuntza arautuak ematen dituen ikastetxe batek ere ez baitaizka ezarrita ikasketa horiek.

– Zein da musika-tresna horren ikaskuntza eta irakaskuntza arautzen dituen esparrua?

Abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretuan jasotakoa, zeinaren bidez finkatzen baitira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako musikako-ikasketa profesionalen curriculumaren oinarriko alderdiak.

– Zer asmo du Hezkuntza Departamentuak tresna hori Nafarroako Kontserbatorio Profesionalen eta Goi Mailako Kontserbatorioan garatzeko?

Ez dago instrumentu-espezialitate hori ezartzeko azterketarik, ekimenik edo eskaerarik, ez Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalaren

aldetik, ez Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren aldetik, eta, beraz, ez dago epe laburrean ezartzeko asmorik.

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00457. Galdera, osasun arloan izandako jazarpen salaketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak osasun arloan izandako jazarpen salaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-25/PES-00457):

Ez dugu jakiterik zuk galdetutako pertsonetako batek izan ote zuen berriak aipatu duzun egunean adierazi nuen jazarpenagatik salaketaren edo antzeko gertaeren inguruan; izan ere, hasiera batean, jazarpen-egoera bat salatu nahi duten pertsonak beren unitateko arduradunengana jo ezean —hori baita bide posibleetako bat— Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko zuzendaritza-karguek ez dute zertan izan salaketa horien berri.

Izan ere, errespetua eta diskrezioa dira Ikerketa Prozedura osoan sexu jazarpenari eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartzeko eta esku hartzeko protokoloak berariaz jasotzen duen berme-etako bat, ukituriko pertsonen intimitatea eta duintasuna babesteko, baita konfidentzialtasuna ere. Printzipio horren arabera, ikerketaren fase guztietan bermatuko baita isilpean gordeko dela prozedura hasten duen pertsonak emandako informazioa.

Beste alderdiari ez zaio inola ere helaraziko pertsona horrek emandako testu-informazioa, ezta zitzak jasoko duten beste pertsonena ere.

Galdetzen zaigun kasuan, gertaeren jakinarazpena, alde batetik, idatziz egin zen —modu anonimoan, hori baita protokoloak jakinarazteko aukera ematen duen moduetako bat—, eta, bestetik, bi pertsonak Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko teknikari bati egindako deiekin, kontuan izanik haiek arduratzen direla jakinarazpen horiek aztertzeaz.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuan jasotako salaketa ez zaio jakinarazi kargudun bati ere; salbuespen dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendaria, unitate horretara baitago atxikita Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua, eta Ikerketa Batzordeko kide den kargua; izan ere, hori zabaltzea erabaki zen jakinarazitako egoera aztertzeke, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko psikologoak aztertu ondotik, eta kargu hori da protokoloan aurreikusitakoa, jakinarazitako gertakariak ustez gertatu diren eremuaren arabera.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuan hartutako ekintzak Protokoloan daude aurreikusita.

Jasota utziko da emandako informazioaren konfidentzialtasuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua babesean parlamentariak dokumentazioa eskatzeko duen eskubi-dearen markoan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00458. Galdera, Espainiako Gobernuak Next Generation funts europarren mailegutako 60.000 milioi eurori uko egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Espainiako Gobernuak Next Generation funts europarren mailegutako 60.000 milioi eurori uko egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Hauxe jakinarazten du Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz eginiko galderarekin loturik (11-25/PES-00458):

Duela gutxi jakin da Espainiako Gobernuak 60.000 milioi eurori uko egin diela Next Genera-

tion funts europarretako maileguen bidez esleituta zituen 163.000 milioi euroetatik.

1. Erabaki horrek izanen al du ondoriorik Nafarroan?

Erabaki horrek ez du izanen ondoriorik Nafarroarentzat, ez baitago eskatutako proiekturik, ezta aribidean ere, aipatutako kopuruen barruan.

2. Izanen al du eraginik abian diren proiektuetan? Ba al dago proiekturik zenbateko horrekin finantzatzea aurreikusita zuenik eta, ondorioz, eginen ez direnik?

Ez dago zenbateko horiekin finantzatuko litzatekeen proiekturik martxan, ezta aurreikusita ere. Beraz, Nafarroako Foru Komunitatean ez da izanen ukituriko proiekturik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00459. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeko lanen aurrekontuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeko lanen aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-25/PES-00459). Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1. Nafarroako Gobernuak ba al daki zein den Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeko obren azken lizitazio-prezioa?

Lizitazioaren eskuduna Nafarroako Ubidea da, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin batera (MITECO), eta dagokion dokumentazio teknikoa prestatzen ari da. Dokumentazio hori amaitu arte ez da izanen jakiterik lizitazioaren azken zifra.

2. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak 2025eko azaroaren 13an iragarritako 373.731.170 euroko prezio hura izanen al da, ala beste zenbateko bat?

MITECOK proiektua behin betiko onetsi zuen, eta materiala gauzatzeko aurrekontua 308.868.735,84 €-koa izan zen, gehi 64.862.434,53 €-ko BEZA; guztira, 373.731.170,37 €. Gainera, eranskinaren barruan, desjabetzeetarako aurrekontua jasotzen du, 6.089.648,12 €, baita PEMaren kultura-ondararako % 2 ere (1.557.321,36 €).

Ministerioak ez du espero proiektu horren berrikuspen gehiago egitea kontzeptu horietan.

3. Zergatik izan du 70 milioi euro baino gehiagoko gehikuntza 2022ko martxoan eraikuntza-proiektuan iragarritako zenbatekoak, gaur egungo 373 milioietara arte? Zer daki Gobernuak igoera horri buruz?

Proiektua egon da jendaurrean paratuta, egin da ingurumen-inpaktuaren adierazpena eta MITECOK berrikusi du proiektua onetsi ahal izateko. Izapidetze honetako errekerimenduek eta 4 urteko izapidetzearen ondoren prezioak eguneratzeak eman dute azken prezioa.

4. Gobernuak eskueran duen informazioaren arabera, zergatik dago 150 milioi baino gehiagoko igoera 2020an iragarri zen zenbatekoaren eta MITECOK orain iragarri berri duenaren artean?

2020an, Canasak aukerei buruzko azterketa bat egin zuen, ez proiektu bat; proiektua 2022an egin zen.

2022an onetsitako proiektuak 249,7 milioiko aurrekontua du. Jarraian, jendaurrean jarri zuten, egin zuten ingurumen-inpaktuaren adierazpena eta MITECOK berrikusi egin onetsi ahal izateko. Izapidetze honetako errekerimenduek eta 4 urteko izapidetzearen ondoren prezioak eguneratzeak eman dute azken prezioa. Eta 150 milioietatik 64,8 milioi BEZari dagozkio.

5. Ez al du uste Gobernuak, kontuan hartuta Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasea eraikitzekeko prezioa 150 milioi euro baino gehiago igo dela, 2020an bi hodi aldi berean eraikitzea erabaki zenetik (dekalajerik gabe), komenigarriagoa izanen litzatekeela, bai Canasaren bai erabiltzaileen interesetarako, obraren bi hodiak lehenengo bata eta gero bigarrena (dekalajearekin) eraikiz egitea?

Aukeren azterketaren arabera, komenigarriagoa da bi hodiak aldi berean eraikitzea. Era berean, kontuan hartu behar da obra bi alditan egiteak eraikuntza-denbora gutxienez bikoiztu egiten duela, eta, horren ondorioz, handitu egiten direla ingurumenean duen inpaktua eta desjabetzeetan situen erasanak.

Hala ere, 10 m³/s inguruko garraio-emia duen hodi bakoitza gai da 10.000 hektarea ureztatzeko eta aho-kontsumoaren beharren erdia hornitzeko. Kontuan izan behar da, gainera, 7.500 hektareak baino gehiagok bozkatu dutela Nafarroako Ubideari atxikitzearen alde, eta une honetan beste ureztatzaille-komunitate batzuek eskaera handia egin dutela informazioa jasotzeko eta Nafarroako Ubideari atxikitzea aztertzeko, bai eta Erriberako tokierakundek ere, Nafarroako Ubidetik urez hornitzearen aldekoak baitira. Eztabaidaezina da bi hodiak aldi berean egin behar direla, horietako bat aurretik aipatutakoarekin konprometituta baitago.

6. Ez al du uste Gobernuak bigarren aukera horrek 100 milioi euro baino gehiago aurrezteka ekarriko lukeela, Nafarroako Ubidearen sisteman sartzeko ureztatzaillearen komunitateen eskaria ezagutzen ez den garaian?

Ez gaude ados 100 milioi aurreztuko direla esatearekin. Eta, gainera, uste dugu frenatu eginen lukeela Nafarroako Erriberaren garapena; izan ere, egoera kalteberan utziko luke klima-aldaketaren ondorioz eta murriztu eginen lirateke lurralde-, ekonomia- eta gizarte-kohesiorako aukerak, ura bezalako ondasun eskas, eskatu eta beharrezko baten eskuragarritasunaren bidez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00460. Galdera, mendekotasuneko III+ graduari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak mendekotasuneko III+ graduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-25/PES-00460 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Mendetasun-egoeran III+ gradua aitortzeko, ez dago araudia egokitu beharrik. Egokitzapen hori beharrezkoa da 11/2025 Errege Dekretuan proposatutako prestazio ekonomiko berrietarako; izan ere, ezartzen duenez, "muturreko III+ mendetasun-gradua aitortuta daukaten pertsonak aitortuta edukiko dute zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko bat jasotzeko aukera, 17. artikulua jasotzen duenaren ildotik, eta prestazio hori etxeko laguntzara edo laguntza pertsonaleko prestazio ekonomiko batera bakarrik bideratzen ahalko da, 39/2006 Legearen 19. artikuluan aurreikusitako baldintzetan".

Manu hori betetzeko, Nafarroako Gobernuak aldatu egingen du 476/2018 Foru Agindua, abenduaren 19koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditzeko diru-laguntzak arautuko dituen, zerbitzu bat kontratzeko: zaintzaile profesional bat eta/edo zerbitzu enpresa bat. Prestazio horrek 11/2025 Errege Dekretuaren helburuari erantzuten dio, hau da, familiei laguntzea III+ graduko muturreko mendetasuna duten pertsonak etxean geldituko direla ziurtatzeko.

Jada hasi dira izapideak, hasierako Foru Agindua argitaratu ondotik, eta amaitu da aurreitazko kontsultaren izapidea, zeinean ez baita aurkeztu alegaziorik. Une honetan, Foru Aginduaren proiektuaren testua idazten ari dira, eta jendaurrean jarriko da.

Prozeduran sartu beharreko aldaketei dagokienez, Osasun Departamentuak protokolo bat ezarriko du muturreko mendekotasunaren III+ gradua lortzeko irizpideak zehaztu ahal izateko. Irizpide horiek jada jaso ziren Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren 2025eko abenduaren 9ko Erabakian, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak arreta emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 19. eta 23. artikuluetan aurreikusitako laguntza pertsonalaren bidez eta etxeko laguntza-zerbitzuaren bidez emaniko zerbitzuak urriaren 30eko 3/2024 Legearen hartzaileen beharretara egokitzeko, alboko esklerosi amiotrofikoa eta konplexutasun handiko gaitzak edo bestelako gaixotasun itzulizkoak dituzten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko.

Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluak lantalde teknikorako deia egin zuen otsailaren 5erako. Lantalde horretan autonomia-erkidego bakoitzeko puntu fokalek parte hartuko dute, III+ graduaren hedapen eta aplikazioari buruz informazioa trukatzeko eta aztertzen jarraitzeko. Talde horren lanaren emaitzetan oinarriturik, aurreikusten da erabakiak hartuko direla gerora, akordio hori osatzeko edo aldatzeko.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren aldetik, beharrezkoa da tresna informatikoa egokitzea mendekotasun-maila berri hori eta SISAADekiko komunikazioa jaso ditzan.

Gainerako prozedurak ohiko bideak jarraituko ditu (Nafarroan badago zirkuitu soziosanitario arin bat, alboko esklerosi amiotrofikoak eragindako pertsonentzat ezarria), III+ mendekotasun-graduaren berri izateak ematen duen lehentasunarekin.

Neurri horiek garapen-fasean daude.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00461. Galdera, gizarte-zerbitzuetako larrialdi-laguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak gizarte-zerbitzuetako larrialdi-laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-25/PES-00461 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

“Zein toki-erakundek itzuli behar izan dituzte zenbatekoak arrazoi horrengatik? Eta zer zenbateko?” galderei dagokienez, adierazi behar da justifikazioa berrikusteko eta dirua itzultzeko prozesuak zabalik daudela oraindik. Hala ere, 2023ko eta 2024ko datuak atxiki dira. Gaur-gaurkoz, ez dauzkagu 2025. urteko zenbatekoak, toki-erakundeak justifikatzeko eta memoriak aurkezteko prozesuan baitaude —martxoaren 1ean amaituko da horretarako epea—.

2023	Justifikatu beharreko gutxieneko gastua	Itzuli beharreko zenbatekoa	Egikaritzearen ehuneko, FDren finantzaketarekiko
Alloko, Arellanoko, Arroizko, Deikazteluko eta Leringo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	13.565,56	65,85	% 19,90
Antzin-Ameskoako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	8.583,39	3.298,18	% 12,31
Buñuel Barrutiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.	16.288,40	3.849,84	% 15,27
Lizarrako Udala	17.343,10	6.092,56	% 12,97
Los Arcos Barrutiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	11.757,24	7.541,23	% 7,17
Tuterako Udala	42.079,52	11.229,13	% 14,66
Arguedas, Valtierra, Villafranca, Milagro eta Cadreitako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	20.306,77	2.383,93	% 17,65

2024	Justifikatu beharreko gutxieneko gastua	Itzuli beharreko zenbatekoa	Egikaritzearen ehunekoak, FDren finantzaketarekiko
Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	9.456,36	596,69	% 18,74
Antzin-Ameskoako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	8.032,55	4.436,81	% 8,95
Buñuel Barrutiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.	16.694,81	161,29	% 19,81
Erronkari Iboxaren Batzordea	5.112,37	221,54	% 19,13
Los Arcos Barrutiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	11.320,25	5.289,82	% 10,65
Erriberriko Barrutiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	12.783,07	3.646,62	% 14,29

“Ez-betetze hori eragiten duten arrazoiei” dago-kienez, hau nabarmendu behar da:

2020ko uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuan ezarritako zenbatekoa kalkulu bati dagokio, eta ez eremu bakoitzaren errealtate espezifikoari. Beraz, urteko estaldura-premia errealek ez dute zertan bat etorri zenbatetsitako zenbatekoarekin.

Bestalde, gizarte-inklusioko eta/edo gizarte-larrialdiko prozesuetara bideratutako laguntzak beharrianak estaltzeko sistema zabaldu batean integratzen dira. Sistema horrek barnean hartzen ditu, besteak beste, prestazio hauek: errenta bermatua, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, oinarrizko laguntza materialaren programa, gizarteratzeko aparteko laguntzak eta abar.

Gizareratze-prozesuetara eta/edo gizarte-larrialdiko prozesuetara bideratutako laguntzak gizareratze-prozesuekin lotzen dira, eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen balorazio sozialaren mende daude; beraz, zenbatetsitako zenbatekoa ez justifikatzeak esan nahi du eremu horretako premiak oinarrizko beharrianak estaltzeko sistemak bete dituela.

Eta, azkenik, 48/2020 Foru Dekretuak hitzarmenetan gizarteratzeko eta larrialdi sozialeko laguntzen finantzaketa zuzena sartu zuen, aurreko dirulaguntzen eredua gainditu ondotik. Ezartzen denez (23.3 artikulua) foru-ekarpenaren gutxienez % 20 justifikatu behar da kontzeptu espezifikoetan (adierazi den bezala, zenbateko hori gutxi gorabeherakoa baino ez da), urte anitzeko hitzarmenen I. eranskineko baldintzek diotenaren arabera (Erans-

kina). Udalerriek irizpide horiek beren ordenantzen bidez zabaltzen ahal dituztenez, ohikoa da gizarteratze-laguntzetako benetako gastua handiagoa izatea dekretu honen bidez justifikatutakoa baino.

Azkenik, “ez-betetze hori zuzentzera bideratutako neurriei” dagokienez, berriz esan behar da gizarteratzeko eta gizarte-larrialdietarako laguntzak gizarte-babeseko sistema zabalago batean txertatzen direla, eta sistema hori loturik dagoela banakako inklusio-prozesuekin eta profesional publikoen balorazio teknikoarekin. Era berean, % 20ko atalasea gutxi gorabeherakoa denez, desbideratzea administratiboa baino ez da. Beraz, Departamentuak zorrotz jarraituko du 48/2020 Foru Dekretua betetzen.

ERANSKINA

Bosgarren klausularen 2.1.c) apartatuak ezartzen duenari jarraikiz, toki-erakundeek gizareratze-prozesuetarako eta/edo gizarte-larrialdietarako ematen dituzten laguntzek gastua justifikatzeko bete behar dituzten baldintzak

Gizarteratzera eta/edo gizarte-larrialdiko prozesuetara bideratzeko laguntzat hartzen dira Nafarroako Foru Komunitateko oinarrizko gizarte-zerbitzuen titular diren toki-entitateek kudeatzen dituzten laguntzak, kalteberatasun sozialeko egoeran dauden pertsonetara bideratuak, helburu gisa harturik gizareratze-prozesuetan laguntzea eta premiazko gizarte-premien estaldura berehala bermatzea beren udalerrietan bizi diren eta balorazio teknikoaren arabera laguntza behar duten familia-unitateei.

1. Definizioak

a) Gizarteratzaera eta/edo gizarte-larrialdietarako prozesuetara bideratutako laguntza: ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoak —izan ohikoak, izan apartekoak— aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten familia-unitateei zuzendua.

Prestazio horiek ezaugarri hauek dituzte:

- Xede jakin baterako dira; beraz, eman diren helbururako bakarrik bideratu behar dira.

- Pertsonalak eta besterenezinak dira, familia-unitateari zuzenduak diren heinean.

- Berehala tramitatzen dira, kudeaketa horrek laguntza ahalik eta lasterren eskuratzea errazten baitu.

- Lanbide-ekintzaren osagarria da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak familia-unitatearekin garatutako esku-hartzeari laguntzeko neurri gisa ulertzen baita.

b) Bizikidetzako familia-unitatea: aurreikusitako ondorioetarako, eskatzailea eta, kasuaren arabera, eskatzailearekin bizi diren pertsona bat edo gehiago sartzen dira, izan lotura hori ezkontza-ahaidetasuneko edo harreman horren tankerako harreman afektibokoa, izan odolkidetasun-harremana, bigarren mailaraino edo lehen mailaraino bitartekoa.

c) Familia-unitatearen baliabide ekonomikoak: familia-unitateari egozten ahal zaizkion diru-sarrerak eta ondarea (ondasun higigarriak eta ondasun higiezinak).

Familia-unitatearen diru-sarreratzat hartuko dira haren edozein kidek eskuratutakoak, eskaera-koak barne, kontzeptu hauetako edozeinetan:

- Besteren konturako edo enpresa- eta lanbide-jardueretako lan-errendimenduak (zenbateko gordinak, Gizarte Segurantzaren kotizazioa eta eskubide pasiboengatik, nahitaezko mutualitateengatik edo antzekoengatik ordaindutako zenbatekoak kenduta), prestazioak eta pentsioak eta beste edozein hileko diru-sarrera.

- Ohiko erabilerako etxebizitzaz bestelako ondasun higiezinak etekin garbiak (alokairuak, errentamenduak...).

Ondasun higigarriak eta ondasun higiezinak 2 d) eta e) apartatuetan ezarritakoaren arabera baloratuko dira.

2. Familia-unitate onuradunen betekizunak

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatu behar-kote baldintza hauek betetzen dituztela familia-unitateen gizarteratze- eta/edo larrialdi-prozesuetarako laguntzak eskuratzeko:

a) Eskatzailea 18 urtetik gorakoa izatea edo bere ardurapean adingabeak dituen adingabe emantzipatua.

b) Familia-unitateak Nafarroako Foru Komunitateko edozein herritan erroldatuta egon beharko du.

c) Familia-unitateko kide guztien hileko diru-sarrerak, 1.c puntuan adierazitakoaren arabera, ez dira izanen familia-unitateko kide-kopuruaren araberrako eskala progresibo honetan jasotakoak baino handiagoak:

FAMILIA-UNITATEKO KIDEEN KOPURUA:	HILEKO DIRU-SARREREN GEHIENENKO ZENBATEKOA
1	1.255 € x familia-unitatea
2	1.506 € x familia-unitatea
3	1.631 € x familia-unitatea
4	1.757 € x familia-unitatea
5	1.882 € x familia-unitatea
6 edo gehiago	2.008 € x familia-unitatea

d) Familia-unitateko kide guztien ondasun higigarriek ez dituzte gaintitu behar Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean ezarritako ondasun higigarri konputagarriak.

e) Familia-unitateko kide guztien ondasun higiezinaren katastro-balioak, ohiko etxebizitzarena izan ezik, ez du gaintitzen ahalko 10 aldiz kide bakarreko familia-unitate batentzat bermatutako errenta, urteko zenbatekoan. Baldintza hori ez da bete beharko ondare hori inguratzea ezinezkoa dela justifikatzen bada.

f) Gastu espezifikoek aurre egitea zailtzen duen egoera bat izatea, kontuan izanik gastu horiek ordaintzea beharrezkoa dela gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko.

Familia-unitate eskatzaileek errenta bermatua jasotzen badute, ulertuko da betetzen dituztela c), d) eta e) puntuak.

3. Toki-erakundearen aurrekontu-baliabideak

Hitzarmen honen indarraldiko urte bakoitzeko gastuen aurrekontuan, toki-erakundeak gutxienez Nafarroako Gobernuak kostu espezifiko gisa finantzatutako zenbatekoaren % 20 bideratu beharko du. Zenbateko hori bi aldeek urtero sinatuko duten hitzarmenaren eranskinean zehaztuko da, eta horrek ez du galaraziko, dena den, beren eskumenak gauzatzean aurrekontu-zuzkidura handiagoa izatea.

4. Toki-erakundeak hitzarmen honen ondorioetarako justifikatzen ahal dituen gastuak

Gastu justifikagarritzat jotzen dira laguntzen izaerari erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak, pertsonen gizarteratze-prozesuak bultzatzen dituztenak eta Hitzarmen honen indarraldiko urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten direnak.

Kategoria edo azpikategoria bakoitzean ezarritako gehieneko zenbatekora arte justifikatzen ahalko da, eta familia-unitate bakoitzeko urteko 3.000 euroko gehieneko muga izanen du.

Gastu justifikagarriek kategoria hauetakoren batean egon beharko dute sartuta:

a) Ostatua

a.1) Etxebizitzaren alokairua ordaintzea, etxebizitzaren hipoteka-maileguaren kuota ordaintzea, etxebizitza partekatuko logela ordaintzea, beste bizitoki-mota bat ordaintzea (pentsioa, hotela...), auzo-komunitatearen gastuak ordaintzea.

Kontzeptu horrengatik gehienez 3.000 euro emanen dira urtean familia-unitate bakoitzeko.

a.2) Alokairuko etxebizitza berriaren kontratua, etxebizitza eskatzen duenaren ohiko bizileku erreala eta eraginkorra izanen dena, baldin eta hasieran aparteko ordainketa bat eskatzen badu eta bere baliabide ekonomikoekin bermatzen ahal badu etxebizitzaren ohiko ordainketa.

Kontzeptu horrengatik gehienez 2.000 euro emanen dira urtean familia-unitate bakoitzeko.

Justifikazioaren ondorioetarako, ez da egozten ahalko kontzeptu horrengatik emandako laguntzen gastua, baldin eta familia-unitateek eskabidea egiteko unean jasotzen dituzten xede bererako laguntzak Nafarroan Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa arautzen duen 2018ko abenduaren 26ko 28/2018 Foru Legeak erregulatuak badira.

b) Oinarrizko hornidurak

b.1) Ur hotza eta beste zerbitzu batzuk banatzeko gastuak (estolderia, zaborra biltzea...).

b.2) Elektrizitatea, gasa, berokuntza eta ur bero zentrala, eta beste erregai batzuen gastuak (egurra, ikatza, berokuntzarako gasolioa eta abar).

b.1) eta b.2) kontzeptuengatik gehienez 800 euro emanen dira urtean familia-unitate bakoitzeko.

b.3) Ohiko etxebizitzaren oinarrizko hornidura-kontratuen alten kasuan, altaren kostuaren zenbatekoa emanen da gehienez.

Kontzeptu horrengatik gehienez 2.000 euro emanen dira urtean familia-unitate bakoitzeko.

Ez dira kontuan hartzen komunikazio- eta informazio-gastuak.

c) Nutrizioa eta higiena

c.1) Familia-unitatea osatzen duten pertsonen eguneroko elikadura eta higienerako gastuak (higiene pertsonalerako eta etxeko higienerako oinarrizko elementuak).

Hau izanen da kontzeptu horretarako urteko gehieneko zenbatekoa, familia-unitateko kidekopuruaren arabera:

FAMILIA-UNITATEKO KIDEAK	URTEKO GEHIENEGO MUGAK
1 pertsona	500 euro/urte familia-unitateko
2 pertsona	700 euro/urte familia-unitateko
3 pertsona	940 euro/urte familia-unitateko
4 pertsona	1.220 euro/urte familia-unitateko

Justifikazioaren ondorioetarako, ez da egozten ahalko kontzeptu horrengatik emandako laguntzen gastua, baldin eta familia-unitateek eskabidea egiteko unean jasotzen duten errenta bermatua azaroren 11ko 15/2016 Foru Legeak erregulatua bada.

d) Prestakuntza eta gizarteratze eta laneratzea

d.1) Gizarteratze-prozesuaren barruan, gaikuntza pertsonalerako prestakuntza-jarduera arautu gabeetan eta/edo jarduera soziolaboretan parte hartzeko gastuak.

Gehienez 800 euro urtean familia-unitate bakoitzeko

e) Bestelako oinarrizko beharrak

Atal honetan aurrekoetan zehaztu gabeko laguntzak jasoko dira, betiere Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen balorazio teknikoaren bidez justifikatzen bada laguntza horiek emateko beharra.

Hau izanen da kontzeptu horretarako urteko gehieneko zenbatekoa, familia-unitateko kidekopuruaren arabera:

FAMILIA-UNITATEKO KIDEAK	URTEKO GEHIENEGO MUGAK
1 pertsona	500 euro/urte familia-unitateko
2 pertsona	700 euro/urte familia-unitateko
3 pertsona	940 euro/urte familia-unitateko
4 pertsona	1.220 euro/urte familia-unitateko

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-26/PES-00001. Galdera, NOUko sexu- eta/edo lan-jazarpenari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak NOUko sexu- eta/edo lan-jazarpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Domingo González Martínez jaunak idatziz erantzuteko eginitako galderari loturik, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan sexu- eta lan-jazarpen kasu baten salaketa anonimo baten inguruan (11-26/PES-00001):

1. Ba al dago sexu- eta/edo lan-jazarpeneko kasuetarako jarduera-protokolorik Nafarroako Unibertsitate Ospitalean eta O-NOZeko gainerako ataletan?

Bai. Osasunbideak dokumentu hau du: "8. eranskina, lan-ingurune gatazkak, jazarpena edo beste barne-indarkeria mota batzuk prebenitzeko, konpontzeko eta horien jarraipena egiteko prozedurari buruzkoa. Sexu jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta esku hartzeko protokoloa. 14. or., 2. berr. – Berrikuspen-data 2025/04/22".

2. Protokolorik egonez gero, inolako tresnarik taxutu al da pertsonak sexu- eta/edo lan-jazarpena anonimoki salatu ahal izateko?

Bai, berariaz aurreikusten da, atxikitako dokumentuan ikusten ahal den moduan.

3. Sexu- eta/edo lan-jazarpenaren salaketa anonimoen aurrean jarduteko tresnarik ez badago, zer jarduera-gidari heltzen dio O-NOZek, pertsonak jokabide horietatik babestu eta jokabideok desagerrarazteko?

Bai, badira erreminta horiek.

4. O-NOZek zer jarduketa egin ditu, sare sozialetan eta komunikabideetan agertutako salaketa dela-eta?

Bazirudien sare sozialetan argitaratutako salaketa bat zetorrela protokoloan aurreikusitako bideetik jasotako mezu anonimo batekin. Erregistratutako salaketa horren harira protokoloa aktibatu zen, eta lkerketa Batzordea eratu zen, zeinak gaur egun elkarrizketak egiten jarraitzen baitu kalteak izan bide dituzten edo lekukoak izaten ahal diren pertsonekin. Batzordeak azken txostena egin ondotik, neurri iraunkor egokiak hartuko dira.

5. Portaera horiek jakinaraziak izan aurretik ere haien berri izan bazuen, zer neurri hartu ziren salatutako jokabidea zuzentzeko?

Azaroan salaketa anonimo bat jaso zenean izan zen egoera horren berri, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ezarritako protokoloaren arabera jokatu zen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-26/PES-00002. Galdera, arantza bifidoa eta/edo hidrozefalia duten pertsona helduak kronikoen estrategian oinarri hartuta artatzeko ereduari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak arantza bifidoa eta/edo hidrozefalia duten pertsona helduak kronikoen estrategian oinarri hartuta artatzeko ereduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak ida-

tiz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-26/PES-00002):

Gaur egun, arreta indibidualizatua ematen jarraitzen da kasuen kudeaketan oinarrituta, paziente horietako bakoitzaren askotariko beharrei erantzuteko.

Bestalde, arantza bifidoa duten pazienteak Kronikotasun Estrategian sartzeko plangintza egiten jarraitzen dugu, baldin eta paziente kroniko konplexuenak eta premia handienak dituztenak definitzeko inklusio-irizpide jakin batzuk betetzen badituzte, betiere arreta sanitario integratua eta kasu askotan soziosanitarioa eskatzen badituzte.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-26/PES-00003. Galdera, 2024an eta 2025ean Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan erregistratutako zakurren eta katuen erroldan izandako aldaketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, 2024an eta 2025ean Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan erregistratutako zakurren eta katuen erroldan izandako aldaketei buruzkoa, 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak informazio hau ematen du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz helarazitako 11-26/PES-00003 galderari loturik:

Horiei erantzunez, hauxe adierazten du Abeltzaintza Zerbitzuak:

Nafarroako Foru Komunitatean 2024tik 2025era bitartean erregistratutako txakurren eta katuen errolda osoaren datuak zer dela-eta aldatu diren jakiteko UPNk egindako idatzizko galderari erantzunez, hauxe jakinarazten da 11-25-PEI-01074 eta 11-24-PEI-00837 espedienteetan emandako datuak alderatuta:

1. 11-24-PEI-00837 espedientean emandako datuak

2024ko urrian guztira izena emandako txakur eta katuen kopurua:

	TXAKURRAK	KATUAK
Lagun Egiteko Animaliak Identifikatzeko Nafarroako Erregistroan (RIACNA) inskribatutako txakurrak eta katuak	138.645	17.805

2. 11-25-PEI-01074 espedientean emandako datuak

2025eko abenduan guztira izena emandako txakur eta katuen kopurua:

	TXAKURRAK	KATUAK
Lagun Egiteko Animaliak Identifikatzeko Nafarroako Erregistroan (RIACNA) inskribatutako txakurrak eta katuak	114.307	24.473

3. Erregistratutako txakur eta katuen aldakuntzaren azalpena

- Erregistratutako txakurrak: 2024ko urritik 2025eko abendura 24.338 txakur gutxiago erregistratu dira. Jaitsiera horren arrazoi nagusia da Lagun Egiteko Animaliak Identifikatzeko Nafarroako Erregistroa eguneratu egin dela, 2025eko urrian jarri baitzen abian ofiziozko bajeen prozedura. Prozesu horren ondorioz, baje eman zitzaizkien 20 urteko gorako eta azken bi urteetan amorraren kontrako txertorik erregistratu ez duten 22.411 txakurri. Gainerako aldaketak jabeek jakinarazitako alden eta bajeen arteko balantzearen ondorio dira.

Pentsatzekoa da erregistratutako txakurren erroldak behera egiten jarraituko duela datozen urteetan, ofizioz baje hartu ez duten animalia batzuk hilda egonen direlako ziurrenik, nahiz eta jabeek baje jakinarazi ez. Erregistratutako animalien errolda benetako erroldara hurbilduko da, gerora eguneratzeak egiten diren heinean, ofiziozko baje bidez edo jabeek datuak jakinarazteko kanpainen bidez.

- Erregistratutako katuak: 2024ko urritik 2025eko abendura erregistratutako katuen erroldak 6.668 katu gehiago eman ditu. Igoera hori ulertzeko, gogoratu behar da 2022/11/30etik, hau da, 94/2022 Foru Dekretuak indarra hartu zuenetik, nahitaezkoa dela katuak mikrotxiparekin identifikatzea. Data horren aurretik, 7.000 katu inguru zeuden erregistratuta Lagun Egiteko Animaliak Identifikatzeko Nafarroako Erregistroan.

2023aren hasieran, Nafarroako Gobernuak informazio-kanpaina bat egin zuen araudi berriari buruz Albaitarien Elkargoarekin lankidetzan, eta kartelak eta liburuxkak bidali ziren albaitaritzaklinika eta udaletara, zabal zitzaizkien. Besteak beste, katuak mikrotxip bidez identifikatzeko betebeharra azpimarratzen zen, bai partikularrenak, bai katu-kolonietako kideenak.

Une horretatik aurrera, nabarmen handitu da Lagun Egiteko Animaliak Identifikatzeko Nafarroako Erregistroan izena emandako katuen kopurua. Foru Dekretuak indarra hartu aurretik erregistratutako 7.000 katu ingurutik 17.805 katu izatera igo zen 2024ko urrian, eta 24.473 katu 2025eko abenduan. Gehikuntza horiek ez datoz bat katu berrien benetako kopuruarekin; aitzitik, kopuru horretan lehendik zeuden katu asko sartzen dira, albaitariari egindako bisitetan identifikatu ondotik, albaitariak jakinarazten baitie mikrotxipa erabiltzea nahitaezkoa dela.

Beraz, ez da harritzekoa 2025eko abenduko erroldako balantze garbi positiboak 6.668 katu gehiago ematea 2024ko urrikoarekin alderatuta, alde batetik, lehendik diren katuen erregularizazioari erantzuten diolako, eta, bestetik, katu berrien altak kontuan hartzen direlako, lagun egiteko animalia gisa edo katu-kolonietako kide gisa. Aipatutako aldiaren erregistratutako altak:

– Katuen % 37 katu-kolonietako katuak dira, eta horrek erakusten du gero eta udal gehiagok kudeatzen dituztela katu-koloniak, ez soilik bertako kideak esterilizatuz, baizik eta mikrotxipekin identifikatuz, araudiak eskatzen duen bezala.

– Gainerako % 63a partikularren katuak dira. Horietatik % 28 dira 2024-01-01a baino lehen jaiotakoak, hau da, animalien erregularizazioak dira oraindik ere.

Datozen urteetan katuen erroldak gora egiten jarraitzea espero da, arrazoi hauengatik:

– Araudiak behartu egiten dituelako udalak katu-koloniak kudeatzera.

– Lehendik dauden katuak erregularizatzen jarraituko delako.

– Katuak lagun egiteko animalia gisa dituzten etxeen kopuruak gora egiteko joerako duelako Espainian.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-26/PES-00004. Galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariek goi-mailako kirolari izaera edukitzearen baldintza betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariek goi-mailako kirolari izaera edukitzearen baldintza betetzeari buruzkoa, 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-26/PES-00004 idatzizko galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko zuzendariak ez du egin bilerarik Monjardín Lizeoko arduradunekin galdetutako gaiari buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-26/PES-00005. Galdera, biktimak babestearren hartutako neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak biktimak babestearren hartutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-26/PES-00005):

Ikerketa Batzordea eratu eta hark zenbait elkarrikerketa egin ondotik, hauxe ondorioztatu da: ordu-ra arte jasotako testigantzen arabera, hasierako salaketan deskribatutako egitateen parte handi bat berresten duten zantzu sendo eta koherenteak egiaztatu direla, eta idazkariaren bidez jakinarazi da beharrezkotzat jotzen dela kautela-neurriak hartzea salatzaileak babesteko.

Profesionalen zuzendaria ados dago kautela-neurri bat hartzearekin, sexu-jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko protokoloak aurreikusten eta ahalbidetzen duen bezala. Hala, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren

gerenteari helarazten dio, antolamendu-neurri bat izan dadila proposatuz; alde horretatik, adierazten da ez duela ekartzen ahal haien eskubideak murriztea funtsean aldatzea edo haien eskubideak murriztea —hau da, lantokiz aldatzea ikerketaren xede diren jokabideen egilea dela jakinarazi zaion pertsona—, eta, protokoloak aurreikusten duen bezala, salatzaileak eta ustezko biktimak babestea eta errepresaliak saihestea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendari gerenteak lantokiz aldatzea proposatu dio jakinarazpenaren xede den pertsonari, harik eta Sexu-jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta esku hartzeko Protokoloaren Ikerketa Batzordearen lanak amaitu arte.

Erabaki hori sinatu da, eta, 2026ko urtarrilaren 13tik aurrera, pertsona horrek ez du lan egiten Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan, baizik eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren beste eremu batean.

Ikerketa Batzordeak zerbitzu horri atxikitako langileei elkarrizketak egiten jarraitzen du, eta aurreikusten du txosten bat eginen duela Protokoloak zehazten dituen epeetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-26/PES-00006. Galdera, O-NOZeko lan-giroari buruzko azken inkestan sexu-jazarpeneko komentarioak egin direla-eta hartutako neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak O-NOZeko lan-giroari buruzko azken inkestan sexu-jazarpeneko komentarioak egin direla-eta hartutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-26/PES-00006):

Inkesta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei egin zitzaizen, eta, beraz, ez dago Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasuna-

ren Institutuko langileen iruzkinik, ezta erreferentzia zuzenik ere.

Inkesta 2025eko abenduaren 19an amaitu zen, 2026ko urtarrilean izan ditugu emaitzak eta une honetan horien azterketa egiten ari gara.

Egindako galderari dagokionez, aurreratu dugu azken galderan sartutako iruzkinen irakurketa, eta lan-eremuan sexu-jazarpeneko jokabideei buruzko erreferentziarik zutenak bilatu ditugu.

Iruzkin horiei dagokienez —ahalbidetzen dute zer gertatzen den eta zer pertsona eta/edo unitate egoten ahal diren ukiturik—, dagoeneko martxan daude abian jarri beharreko ekintzak, Laneko Arriskuaren Prebentzioarako Zerbitzuari jakinarazi dizkiogun jokabideekin loturik dauden heinean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-26/PES-00007. Galdera, kotizaziopeko pentsioen eta alargun-pentsioen gutxieneko osagarriak bultzatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Garrido Sola jaunak kotizaziopeko pentsioen eta alargun-pentsioen gutxieneko osagarriak bultzatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Hauxe jakinarazten du Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak idatziz eginiko galderarekin loturik (11-25/PES-00007):

Informazio eskaera pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 68. artikuluan (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua) araututako kotizaziopeko alarguntasun-pentsioen eta erretiro-pentsioen kenkariei buruzkoa da.

Horri dagokionez, Nafarroako Foru Ogasunean dauden azken datuak 2023ko eta 2024ko zergaldietako PFEZari buruzkoak dira. Hona hemen horien laburpena:

PENSIONES DE VIUDEDAD Y JUBILACIÓN

		IRPF 2023		IRPF 2024	
		Datos febrero 2025		Datos febrero 2026	
		Declaraciones	Importe	Declaraciones	Importe
1. Deducción por pensiones de viudedad	591	4.598	3.698.414,92	4.310	4.049.423,87
2. Deducción por pensiones de jubilación contributivas	5911	5.358	5.156.163,00	5.192	5.770.725,34
3. Deducción por pensiones jubilación no contributivas	5912				
4. Deducción por pensiones	(1+2+3)	9.956	8.854.577,92	9.502	9.820.149,21
5. Anticipo pensiones en declaraciones	593	2.495	2.128.231,40	2.185	2.245.169,30
6. Deducción aplicada en declaraciones (*)	(4-5)	7.461	6.726.346,52	7.317	7.574.979,91
7. Anticipo pagado mensualmente (**)	(**)	3.184	2.659.720,12	2.749	2.754.104,42
TOTAL DEDUCCIÓN PENSIONES + ANTICIPO	(6+7)	10.645	9.386.066,64	10.066	10.329.084,33

(*) **Deducción aplicada en declaraciones por pensiones**

Importe: (c591+c5911+c5912) - c593

Declaraciones: Es el número de declaraciones en las que se consigna alguna de esas casillas.

No es el número de personas declarantes. En una declaración conjunta pueden existir dos pensiones de jubilación.

(**) **Anticipo pagado mensualmente durante 2023-2024**

Dato facilitado por Derechos Sociales. Declarantes Máximo del año.

Apipatutako 68. artikuluan arautzen dira kenkari horietarako sarbidea mugatzen duten baldintzak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-26/PES-00008. Galdera, Antxon Alonso Egurrola jaunarekin izandako bilereari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak Antxon Alonso Egurrola jaunarekin izandako bilereari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak haxe adierazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko foru-parlamentari Javier Esparza Abaurrea jaunak (11-26/PES-00008) idatziz egindako galderari dagokionez:

Ez dago jasota Alonso Egurrola jaunarekin bilerarik egin denik, ezta Servinabar enpresako beste inorekin ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria:
Javier Remírez Apestegua

11-26/PES-00009. Galdera, “Lur-bankua” ekimenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak “Lur-bankua” ekimenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak atsegin handiz erantzuten dio Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioa atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak “Lur Bankua” izeneko ekimenari buruz eginiko idatzizko 11-26/PES-00009 galderari:

“Lurren eta azpiegituren banku bat sortzea” izeneko ekintza Lurberri nekazaritzako errelebo programaren barruan sartzan da, eta 3. ardatzari heltzen dio; hots, erabiltzen ez diren ustategiak berreskuratzea. Ekintzak planteatzen du errelebo faltagatik erabiltzen ez diren ustategiak identifika-

tzea eta berreskuratzea, batez ere zailtasunak dituzten eta familiakoak ez diren langile berriei eskaintzen ahal zaizkien eremuetan.

Erabiltzen ez diren ustategi horien errolda zentralizatuaren bidez eta informazio puntu baten bidez planteatuko litzateke. Han bilduko lirateke bai ustategi edo lur horiek laga nahi dituzten pertsonak, bai nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerara jo nahi duten pertsonak.

Adierazitako ekintza ez da abian jarri oraindik.

2025eko abenduaren amaieran bidalitako jakinarazpenei dagokienez, gutun bat bidali zaie erretiratze-adinetik gertu dauden ustategietako titularrei, bitartekaritza zerbitzuaren berri emateko, hori baita Lurberri programak jasotzen duen ekintzetako bat. Alabaina, ez da gauza bera egin Lur Bankuaren kasuan, oraindik ez baita martxan jarri.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-26/PES-00010. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuak sektore estratetikokoak sendotze aldera inbertsio berri bat egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Inbertsio Institutuak sektore estratetikokoak sendotze aldera inbertsio berri bat egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

2026ko urtarrilaren 15ean, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera idatzi bat egin zion Nafarroako Gobernuari (11-26/PES-00010). Gai horri dagokionez, hau

adierazi nahi dizu Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Inbertsio potentziala zera zen, interes estratetikotzat jotzen den esparru ekonomiko bateko erakunde baten kapitalean parte hartzea. Alabaina, ez da gauzatu, jabeak prozesua eten baitzuen negoziazioaren jarraitutasunari eragin zioten korporazio-testuinguruan aldaketak gertatu ondotik.

Azken gaiari dagokionez, agertokiak irekita jarraitzen du, baina aurrera egiteko INItik kanpoko zehaztapenak behar dira.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-26/PES-00011. Galdera, LH Dualeko ikasle errepikatzaileen lantoki prestakuntzarako neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak LH Dualeko ikasle errepikatzaileen lantoki prestakuntzarako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-26-PES-00011 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren iritzian, 2025-2026 ikasturteari aplikatu beharreko antolaketa-esparrua nahikoa da araubide iragankorrak eragindako ikasleak kudeatzeko, eta ez da bidezkoa indarreko araudian aurreikusitakoez bestelako neurri gehigarririk hartzea. Aipaturiko antolaketa-esparrua honako arau hauek ezartzen dute: 534/2025 Ebazpena, abuztuaren 4koa, jarraibideak onesten dituena Nafarroan Lanbide Heziketaren Sistemako graduen eskaintzak ematen dituzten ikastetxe publikoetako antolaketa eta funtzionamendua arautzeko, Lanbide Heziketako irakaskuntzei eta programa espezifikoiei dagokionez, 2025-2026 ikasturtean; eta 795/2025 Ebazpena, azaroaren 13koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak emana, honako hauek aldatzen dituena: 534/2025 Ebazpena, abuztuaren 4koa, jarraibideak onesten dituena Nafarroan Lanbide Heziketaren Sistemako graduen eskaintzak ematen dituzten ikastetxe publikoetako antolaketa

eta funtzionamendua arautzeko, Lanbide Heziketa-ko irakaskuntzei eta programa espezifikoiei dagokienez, 2025-2026 ikasturtean; 221/2025 Ebazpena, apirilaren 14koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak emana, 2025-2026 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitatean honako ziklo hauek modalitate presentzian ematen dituzten ikastetxeetako eskola egutegia eta ordutegia egiteko jarraibideak onartzeko: Lanbide Heziketako Sistemako D graduetako oinarritzko mailako, erdi-mailako eta goi-mailako zikloak, eta arte plastikoetako eta diseinuko lanbide irakaskuntzetako erdi-mailako eta

goi-mailako zikloak, 2025eko urriaren 8an helarazitako argibideekin batera 534/2025 Ebazpenari (abuztuaren 4koa, jarraibideak onesten dituena Nafarroan Lanbide Heziketaren Sistemako graduen eskaintzak ematen dituzten ikastetxe publikoetako antolaketa eta funtzionamendua arautzeko, Lanbide Heziketako irakaskuntzei eta programa espezifikoiei dagokienez, 2025-2026 ikasturtean).

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-26/PES-00012. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren hezkuntza-eskaintza handitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren hezkuntza-eskaintza handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-26/ PES-00012 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuaren gaur egungo plangintzarako lehentasuna ekainaren 7ko 1/2024 Legea garatzea da, zeinaren bidez goi-mailako

arte-irakaskuntzak arautzen eta arte-irakaskuntza profesionalen antolamendua eta baliokidetasunak ezartzen baitira. Horregatik, ez da aurreikusten hezkuntza-eskaintza zabaltzea epe laburrean Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, barnean harturik Nafarroako gaita/dultzaina ikasketak.

Une honetan, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak ez du instrumentu-espezialitate hori ezartzeko azterlan, ekimen edo eskaerarik. Bestalde, ez du zentzu tekniko edo akademikorik Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan instrumentu-espezialitate bat ezartzeak, kontuan izanik espezialitate hori ez dagoela ezarrita Foru Komunitatean aurreko etapan —hau da, ez dago ezarrita musika-ikasketa profesionaletan—. Araugintzari dagokionez, aplikatu beharreko araudia aldatuz bakarrik egiten ahalko litzateke, hala erabakiz gero.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi